

Aste Santua gainean



Jaunartzeko argazkiekin hasi gara...

FOTOETXE

• JOSEMRITELLERIN
ARGAZKILARIA
BEASAIN

FOTO Goen

LAKE OIARBIDE
ARGAZKILARIA
ORDIZIA

Duela 41 urte Ordizian jaio, Beasainen bizi eta Lazkaoko Euskadiko Kutxako zuzendaria da Jaime Iruretagoiena, 94an Joxe Mari Aranburu erretiratu zenetik. 1979ko San Prudentziotan irekiz gero Lazkaoko bulegoan ari da lanean. “Laboralean”, berriz, 1977. urtean hasi zen Beasainen. Aurretik Ekonomikas ikasketak utziak zituen eta Cebank-en jarraitu zituen ikasketak.

- Orain, 55 urtetik gora koentzat kanpaina daukazue. Eskeintza gehiago baduzue?

- lazko abendutik aurtengo irailera dago martxan kanpaina hau. 10 hilabeteko batz besteko saldoaren arabera opariak ematen zaizkie automatikoki bezeroei. Jendea oparien bidez bultzatu nahi da, eta nahiko ondo dago. Mugimendua somatu da. Hainbat jende beti zerbaiten eske dabil. Horrela pertsonalki bezero guztiei ematen zaie oparia.

Aurrera ez dakit ze kanpaina etorriko den baina mugimendu handia dago. Momentuz telebankarena ari gara bultzatzen,


informazioa jaso eta ofizian hainbat operazio telefono bidez egiteko. Hori oso ondo dago, guri beste lan batzuk egiteko denbora gehiago ematen digu. Horretaz aparte, kutxazaina ere modernizatu egin behar dugu. Jende asko txartel bidez mugitzen da eta noizean behin etortzen denean denbora asko galtzen da, kartila eguneratzen. Hilabete honetan jarriko dugun kutxazain berrian kartila ere sartzeara egongo da, lana erraztuaz.

- Asanblada orokorra egin berri duzue. Ze balorazio egiten duzue?

- Balorazio oso positiboa. Aurten %10eko igoera aurrikusten da. Momendu honetan jende mugimendu handia dago. Orain diruaren prezioa jeisten hasita dago eta jendea inbertsioak egiten, etxebizitzak erosten hasi da, batez ere gazteak. Mometuan, lana badago, legeak dauden bezala, inork ezin du esan lanpostu finkorik duenik. Baina, lan kontinuoak duenak inbertsioa egiten du eta orain seguruena etxebizitza da.

- Lazkaon etxe berriak ari dira egiten.

- Horrek esan nahi du jende gaztearen mugimendua dagoela. Gainera, gehienak lehenengo etxebizitza erosten dutenak dira. Hirigoiaren aldean



36 etxebizitza ari dira egiten, behekaldean ere kalea zabaltzeko eta etxe berriak egiteko asmoa dago. Mugimendua badago, eraikitzeko lekua ere bai. Arazoa, nere ustez, dena zementuz betetzea da.

- Nola daude etxebizitza kredituak?

- Momentu honetan ondo. Entitateen artean borroka handia dago. Interesak, badakigu nola dauden, jendea informatu egiten da han eta hemen. Herrietan, entitate arteko ezberdintasuna langileena da. Tratu pertsonalak, konfidantzak du garrantzia. Ni saiatzen naiz etortzen denari dudaren informazio guztia ematen. Berak erabaki behar du, baina zein posibilitate dituen jakinda.

- Zubierrekan industrialdea egiten hasi dira. Zer suposatuko du?

- Udalaren ideia oso polita da: etxebizitza, industria, komunikazioa eta abar bultzatzea. Teoria oso polita da, aurrera ateratzen litekeena. Laguntzak badaude, lanpostuak sortu litezke. Lazkaotarrek herrian bertan gutxi lan egiten dute.

- Zer da squash-aren kontu hori?

- Euskadiko Kutxak langileentzat lanez kanpoko ekintzak bultzatzen ditu. Gipuzkoan 6 lagun gaude urtero 3-4 egun kanpora joaten garenak, Espainia mailako banku eta arrazki kutxen arteko squash txapelketara. Goierriatik bi joaten gara, Ormaiztegiakoa eta ni. Aurten 9. urtea izango da eta hasera batean jende guztiari Euskadiko kutxa zer zen esplikatzeko aritzen ginen. Orain denek dakite nortzuk garen.

CAJA LABORAL

EUSKADIKO KUTXA



GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
 "Goierritarrak" Kultur
 Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
 (Postetxe-gainean).

Tfnoa: 889612.

Faxa: 882719.

124. posta-kutxa,
20240 Ordizia.

Zuzendaria:
 Loinaz Agirre.

Maketazioa:
 Mikel Albisu.

Publizitatea:
 Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea:
 Dionisio Amundarain, Jon
 Arano, Mikel Albisu, Joseba Te-
 lleria, Ane Martin, Loinaz Agi-
 rre eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
 Jon Aizpurua, Rufino Iraola,
 Edurne Albizu, Maite Riaño,
 Iñaki Murua, Gabino Murua,
 Josune Amundarain eta Aitziber
 Murua..

Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANtA, S.A.
 (Industrialdea, 1-2. Lasarte-
 Oria)

Tirada: 5.500 ale. 5.400 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
 bere gain hartzen derrigorrez,
 aldizkarian adierazitako esa-
 nen eta iritzien erantzunkiz-
 unik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Goierriko artisau lanen bilduma Zerainen

Goierri guztiko artisauen lan-
 nak bildu, eta erakusgai eta
 salgai jarri dituzte Zeraingo
 Mandioan-Informazio zen-
 truan. Goierriko nekazal
 produktuei, Goierriko artisau
 lanak gehitu zaizkio. 29ko
 inaugurazio ekitaldian Rosa
 Diez Jaurilaritzako Turismo
 sailburua, Guillermo Eche-
 nique Turismo diputatua
 izango dira besteak beste.

3 atal izango ditu proiektu
 berri honek. Batetik, artisau
 lanak bildu, erakutsi eta sal-
 du. Bestetik artisauen taile-
 rretara joateko bisitak
 zehazten dituen foiletoa ka-
 lleratu. Eta azkenik, Goierriko
 artisauen elkarte bultzatu,
 elkarren artean koordinatu
 daitezen. Gerora ere, lanbide
 tradizional hauek mantent-
 zeko asmoz, Zerainen,
 Goierriko edozein lekutan
 edo artisauen tailerretan,
 ikastaroak antolatu nahi dira.

Ikastaroen garrantzia ai-
 patu du Jakoba Errekondo
 Zerain proiektuaren teknika-

riak. Zeramika tradizionala-
 ren adibidea jarri du. "Zera-
 mika tradizionala egiten
 duen inor ez dugu aurkitu.
 Duela gutxi hil zen Gregorio
 Aramendi zen azkena, bere
 ondorengorik ez dago Goie-
 rri guztian. Usurbilgo mutil
 baten lanak bildu ditugu. Ez
 da Goierrikoa baina oso ga-
 rrantzitsua ikusten genuen".

Erakusketa honen arra-
 zoiak hauek dira: Zerain
 proiektuarekin ondo lotzen
 dela, herriarekin eta gure
 ohiturekin lotzen delako.
 Bestetik, mantendu nahi iza-
 nez gero, artisauak elkartzea
 garrantzitsua delako. Zera-
 nek daukan azpiegitura eta
 aukera eskaini zaie artisau-
 ei. Eta noski, hona etortzen den
 jendeari eskaintza zabaltzea-
 gatik. Azken batean, dio Ja-
 kobak, "Artisauen demostra-
 tu nahi diegu egiten jarrai-
 tzea garrantzitsua dela, ez
 bakarrik zentzu kulturalaga-
 tik, saldu daitekeelako baizik.
 Mantendu egin behar dira".

Besteek esana

"Kalera atera eta etengabe
 musika ezberdinak entzun
 behar dira nahi gabe ere.
 Hainbeste erreferentzia ditu-
 gu leku ezberdinetan, ezen
 aukeratzeko gaitasuna gal-
 tzen ari baikara. Tabernetan,
 dendetan, trenean... gero eta
 leku gehiagotan jartzen dute
 musika. Jada arazo bat da, ez
 dakit zergatik entzun behar
 duzun musika nahi ez badu-
 zu".

**Karlos Gimenezek 'Ar-
 gia'n, 1996-III-17an.**

"Baserri gehienetan, ka-
 lean gertatzen den era berean,
 emakumeak etxeko lanaz
 gain explotazioko lanetan
 jarduten da. Hemendik au-
 rrera aldiz, gero eta arrunta-
 goa izango da baserriko ema-
 kumeak etxetik kanpo lane-
 gitea; beraz, egoera honen
 aurrean eta batez ere, gaz-
 teok, konturatu beharrean
 gaude iadanik amaitu dela 24
 orduz jarduten den emazte-
 langile-neskame-andereñoa
 eta bakoitzak egiten duen la-
 nari begirune eta errespetu
 osoz, badirela etxean, elka-
 rrekin eta amonkomunean
 jorratzeko moduko atalak".

**Xabier Iraolak, martxoko
 'Enba'n.**

"Beharbada gazteak ez
 daude oso gustora institu-
 zioek eskaintzen dietenare-
 kin, baina gehiengoak ez dago
 instituzioen kontra"

**Jose Luis Madrazok,
 'Emakunde'n**

*Eusko Jaurilaritza-
 ko Kultura Sailak,
 Gipuzkoako Foru
 Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
 jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Joku zikina

"*Terrorea da, tresna politiko guztien artean, baliagarriena*". Adolf Hitler, 1933.

Futbolean aurrelari batek kontra-koari ostikada eman eta bere burua aiuma artean lurrera botatzen duenean, penaltia eta bestearantz txartel gorria lortuaz, aurrelari horrek talde osoaren eta publikoaren gorespenak jasoko ditu. Garrantzitsuena partidua irabaztea da.

1933ko Alemanian 'Sturm Abteitung' (SA) famatuak kaleetan terrorea ezartzen zuten bitartean, Goebbelsen propagandak Alemania esklabizatuarengatik negar egin zuen. Urte hartan bertan Hitlerrek boterea eskuratu zuen, eta hori zen garrantzitsuena.

1996ko Euskadiren hegoaldean hauteskundeak ospatu eta herriaren borondatea argi gelditzen den unean (EAJk 26.000 boto gora eta HBk 26.000 boto behera), ETak EAJko militante bat hiltzen du biharamunean.

Egun hartan bertan, hildakoaren alderdikideek sentitzen duten amorrua kartel batzuen bitartez adierazi nahi dutenean (eta ez kontenedoreei su emanaz edo dendak "dekretoz" itxiaraziz), JARRAIko komisario politikoek (Lazkaokoek salbu), inork irakurri aurretik desagertarazten dituzte. Gainera, "goitik" jasotako konsigna bati jarraituz, autoen matrikulak eta jendearen fotografiak hartzen jarduten dute (baktere dakielarik datu horiek zeinek eta zertarako erabiliko dituen).

Bitartean, ETaren Alternatiba Demokratiko BAKARRA "apaltasunez eta itxaropenez" eskaintzen diote herriari HBko "errepresaliatu" gizaria-joek. Denak balio du "prozesua" bere helburura iritsi dadin.

HBko abertzaleok: gugandik etza-zuela moeta horretako "teknikarik" espero. Borreroaren demagogiak eta biktimismo faltsuak nazka ematen digute. Lasai, beraz, alde horretatik.

Kontuz ibili, orde, barnean dauzkazuen deabruak zeuon kontra bueltatuko dira eta. SAK txarrak baldin baziren, okerragoak ziren SSak, eta edozein unetan etor liteke zuen 1934ko ekaina-

ren 30a ("Labana luzeen gaua"). Kontuz ibili KASEko faxistekin, ez bait dira inolaz ere abertzaleak.

Dena dela, Euskadin ez du inoiz Hitlerrek botererik lortuko. Euskadin, joku zikinean trebea den futbolariari txistu egingo dio publikoak. Hori gertatuko dela egitan sinesten dugu EGI-kideok, eta gure lanak bide horretatik zuzenduko ditugu.

Bidean anaia erortzen baldin bazai-
gu, lepoan hartu eta segi aurrera.

Goierriko EGI

Zaharra eta Pototori

"Lekobide zan euskalduntarra
gerrero izugarria
Erromari ta beste askori
artu zioten neurria.
Irugarrena Lartaun gaztia
seme-orde ekarria
ta Otsobalek aldamenetik
egiten zion guardia.
Gaur Kantabrian badago alako
koadrilla baten premia".

Txirritaren bertso famatu hau, Txirritak berak joan den otsailean kantatu izan baligu, agian Jon Idigorasekin topatuko huan Alcala Mecoko ziega batetan, terrorismoaren apolojiaz akusaturik. Noski, Garzon jaunaren aginduz. Bertso honen gaurkotasuna izugarria duk zalantzarik gabe. Izen propio batzuk trukatzea aski duk, Euskal Herriak gaur bizi duen errealitatea isladatzeko.

Txirritak arrazoia zuela, ondorengo hamarkadek argiasko frogatu ditek. Arrazoia zenuten zuek Zaharra eta Pototo, "premiazkoa zen kuadrila batetan" sartzeko erabakia hartu zenute-nean. Iker eta Urkok bezelaxe edo 550 preso eta ehundaka iheslarien arrazoi berberak.

Gartzelan, exilioan edo azken 28 urte hauetan bidean galdutakoen "kuadrila", Lekobide, Lartaun, Otsobal, Matallats eta Aitzolez osatua zegok, zuek ondo dakizuen.

Txirritak, berea egin zian eta ondo gainera, gure iragana igorri baitziguk bertsoan. Lagunok, zuek lasai egon,

zeren oraina iragana izaten denerako, gaurko Txirritak kantatzen dituzten bertsoetan, zuen izenak agertzen dituk eta urte batzuen buruan, euskaldun guztiek kantatuko dizkitek errespeto eta mirespenez, eta orduan ere, iragana present izango duk, baina Euskal Herri euskaldun eta librean.

Zaharra, 19 urte betetzen dituk Seba-sekin batera erahila izan hitzenetik eta geroztik gauza asko gertatu dituk hemen. Hik berriz Pototo, azken 10 urteak galdu dituk eta gauza asko dizkiat kontatzeko baina guzti hori, gutun pribatu batetan izkiriaturiko dizuet.

Portzieto, Joxepanen, Ezker Abertzalearen egoitz sozial eta politikoa eraiki diagu ehundaka herritarren laguntzarekin. Ederra duk benetan, azpian taberna-jatetxea eta gainera pixuan lanerako gelak; badakizue, bilera, bulegoa e.a. Ikusiko bazenute! Zuek hor ikusteagatik edozer gauza egingo nitek!

Udaletxea ere HBk gobernatzen dik, baina lehen ZUTekoek zien gehiengoa eta bazirudian mundua jan behar zutela, baina egia esateko, etzien asko falta izan ez mundua jateko, zeren utzi ziztuzten zuloak kristorenak dituk.

Azkeneko hauteskundeak ere, espainolak, guk irabazi dizkiau baina "porgoleada" gainera. Ezker Abertzaleko erakundeetan, geroz eta jende gehiago ari gaituk lanean, ilusio eta konbikzioz gainezka. Bazekiau irabazi egingo dugula, eta lanerako dotriñarik hoberena horixe duk! Zuen ametsak, egi bihurtuko dizkiau, ondorengo ametsak berdinak izan ez daitezen bada ere.

Bazekiat etzaizuela gustatuko baina hala ere esan beharra zeukeat. Martxoaren 8, 9 eta 10ean, ekitaldi politiko antolatu dizkik Herriak. Badakizue, zuen erahilketaren urtemuga duk eta... Herriak zerbait egin nahi dik, beraz ez haserretu. Ez gaituk negarrerako bilduko ez, bihotzak alaitu eta betetzeko baizik!

Zuek zenioten bezela, **Euskaldunak** eta **Libreak**, ez besterik!

Besarkada handi bat zuen lagunon partetik!

Zaldibiako Amnistiaren aldeko Komitea

Intereseko Telefonoak

Gure korrespontsalen telefonoak

Ataun:

Jon Aizpurua180139

Beasain:

Izaskun Salazar880313

Ezkio-Itsaso:

Pilare Mujika160560

Gabiria:

Gabino Murua160803

Idiazabal:

Aloña Galarraga801375

Itsasondo:

Edurne Ayuso160615

Lazkao:

Iraida Martin883617

Legorreta:

Josune Amondarain...806026

Olaberria:

Nagore Goiburu160616

Ordizia:

Aitor Calvillo160563

Ormaiztegi:

Aitziber Murua880998

Segura:

Joseba Telleria889174

Zaldibia:

Rufino Iraola884353

Zegama:

Edurne Albizu801351

Errezeta



Gorka Izagirrek emana
Otatza sagardotegia
Zerain

OTATZAKO TELLAK

Osagaiak: 175 gr. gurin, 325 gr. glas-azukrea, 5 arrautza zuringo, 210 gr. irin, 50 gr. almendra tostatu gabeak.

- Gurina ontzi batean jarri. Bigundu baina ez urtu.

- Azukrearekin ondo nahastu eta zuringoak gehitu.

- Ondo oratu eta irina gehitu, oratzen segi.

- Labean sartzeko ontzia gurin piska batekin igurtzi. Labean sartu dexteko tartea utziz. Egiten hasi ahala almendrak bota. Ertzak tostatzeko hasi arte eduki.

- Labetik atera orduko, oraindik bigunak daudela, botila baten gainean jarri, hoztean, tella forma hartzeko.

Bota bertsoa



Joxe Munduate
Gaia: Udaberrian gehi-ago ligatzen al duk?
Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Udaberriak piztu ohi ditu askoren itxaropenak maitasuneko istorioak sentimentuzko poemak zentzu gutxikin jokatzeko dugu hala bultzaturik senak baina esaten direnak ez ditut sinisten denak (ber) ez zaizkit asko ugaltu ligatutzeko kemenak bat neretzako gorde dezala bi ligatzen dituenak (ber).

Oraindik ez dut lige kontutan itxaropen dena galdu jende aurrean buru makurka ezingo gera azaldu esaldi zaharrak dion bezala sekula ez da berandu surik ezin dut itzaldu barrenak ketan dihardu (ber) neska artean jarraituko dut maitekiro ta ondradu GOIERRITARRAn ateratzeak zerbait balioko al du (ber).



UMEEN ARROPA DENDA
Urtebetetik 14 urtera arte prezio onean janzteko aukera

Udaberriko denboraldirako arropa berria janzteko prest daukagu.

Santa Maria, 13 ☎ 16 12 39
ORDIZIA

URBITARTE sagardotegia



☎ 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN



MUJIK
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Lana

□Emakume gaztea prest dago bere arratsaldea eskaintzeko etxeko lanak egin, haurrak zaindu edo beste zerbitzu batzuetan. 67 42 36 telefonoan Mari Karmen zuen deiazen zain dago.

Salerosketak

□Txakurra salgai, Collie arrazakoa, emea, hiru urtekoa, marroi kolorekoa. 88 96 68. Gaueko 9etatik aurrera deitu. Jesus.

Etxebizitzak

□Ataunen pisua alokatzen da. Erdiamoblatua, bergailu zentrala eta garajea. Dena kanpoaldera. Deitu: 18 02 48.

□Etxebizitza bat alokatuko nuke Beasainen. Gehieneko prezioa, 30.000 pezeta hileko. Deitu 16 18 20 telefonora, gaueko 9etatik aurrera. Elisa.

□Altzagan etxebizitza berri bat errentan eman nahi da. Bi solairutan banaturiko etxebizitza da eta 3 logela, bainugela, egongela eta sukalde ekipatuaz osaturik dago. Interesatuek telefono honetara deitu beharko duzue: 88 11 70.

□Ormaiztegin pisua salgai. Handia, berritua eta dena kanpoaldera. 722794.

ANTZERKIA

✓ Beasain:

Apirilak 12, Lau Elkarre Autonomotako lau antzerki taldek, Eolo euskal taldea barne, egin duten 'Los dioses y los cuernos' koproduzioa, Usurbe Antzokian, 22:15ean. Gazteleraz. Sarrera 600 pezeta.

MUSIKA

✓ Segura:

Martxoak 30, Andoaingo 'Albeto Agirre' abesbatza, elizan, 19:30ean.

✓ Zaldibia:

Apirilak 5, Su ta Gar, La Polla, Etsaiak eta Deabruak Teilatuetan, Karpa Erraldoian, 21:30ean.

Apirilak 6, Body Count, Negu Gorriak, Zebda eta Dut, Karpa Erraldoian, 21:30ean.

BERTSOAK

✓ Segura:

Apirilak 13, Baratze Pilotalekuan, Joxe Agirre, Mañukorta, M. Mendizabal, A. M. Peñagarikano, I. Murua, A. Egaña, S. Lizaso, M. Lujanbio.

✓ Itsasondo:

Apirilak 20, Errota pilotalekuan, 22:30ean. Bertso-

lariak: Aitor Mendiluze, Xabier Zeberio, Angel M. Peñagarikano, Joxe Agirre, Andoni Egaña eta Jon Sarasua. Gai jartzailea: Mikel Mendizabal.

ZINEA

Goieniz zine kluba:

Apirilak 11, 'La reina de la noche', Usurbe Antzokian, 21:00etan.

✓ Legorreta:

Apirilak 1, 'Un mundo perfecto', Herri Zineman, 20:30ean.

Apirilak 8-9, 'Blade runner', Herri Zineman, 20:30ean.

Apirilak 22, 'Speed', Herri Zineman, 20:30ean.

✓ Beasain:

Ostirala 29, 'Jumanji', 22:15

Larunbata 30, 'Jumanji', 19:30 - 22:15

Igandea 31, 'Jumanji', 16:45 - 19:30 - 22:15

Astelehena 1, 'Jumanji', 19:30 - 22:15

✓ Ordizia:

Ostirala 29, 'El dia de la bestia', 22:15.

Larunbata 30, 'El dia de la bestia', 10:30 - 22:15.

Igandea 31, 'Mayor League II', 16:45. 'El dia de la bestia', 19:30 - 22:15.



'La reina de la noche' Arturo Ripstein (Mexiko, 1994)

Arturo Ripstein-ek Lucha Reyes kantari mexikarraren bizimodu sutsu eta nahasia kontatzen digu filme honean, Patricia Reyes aktore-saren eskutik. Bere amak zuzendutako putetxean aita ezezagun baten fruitu jaio zen Lucha 1906an, 1944an bere burua hil zuelarik 'amodio libre' eta lesbianismo artean murgilduta etenik gabeko bizimoduari zuku atera ondoren. Hone-taz gain filmea garaiko egoera politikoa isladatzen ere saiatzen da, nazien Ale-maniatik edo espainiar ge-rate zibiletik ihes egindako komunisten bidez.

Paz Alicia Garcia dugu gidoiaren, baita abestietako hitz bikainen egilea ere eta kantariari omenaldi bat es-keini beharrean, bere izaera minbera agertzen eta ingu-ruko pertsonekin izandako harreman gatazkatsuak kontatzen ditu: *amaren* era-gin txarra, Pedro Caldero-nekin ospatutako ezkontza sakrilegioa eta ondoren sor-tutako harekiko gorrotoa, *La Jaira*, bere lagun eta amo-rante izkutuarekin izanda-koak, eta *Luzma*, mozkorral-di gau batean kalean erosi zuen indiarrekin gertatu-takoak.

IBAI - ONDO



ZURGINTZA HALTZARIAK P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 BEASAIN



Senpere Merkatal Gunea
☎ - Faxe: 16 19 90 BEASAIN

Egur laminatuzko leihoak •
P.V.C. • Aluminio • Poliuretano •
Ateak • Pertsianak • Gortinak •
Parket flotantea

Karlos I Etorbidea, 2 - behea
☎ 46 22 66 Faxe: 46 22 24 DONOSTIA

Astelehena 1, 'El dia de la bestia', 19:30.

Osteguna 4, 'Homicidio en 1º grado', 19:30 - 22:15.

Ostirala 5, 'Homicidio en 1º grado', 19:30 - 22:15.

Larunbata 6, 'Asalto al tren del dinero', 19:30 - 22:15.

Igandea 7, 'Show Girls', 19:30 - 22:15.

Astelehena 8, 'El regreso del viento del norte', 16:45. 'Show Girls', 19:30 - 22:15.

HITZALDIAKE

✓ Beasain:

Martxoak 29, Abiadura Handiko Trenari buruzko hitzaldia. Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:00etan.

IKASTAROK

✓ Beasain:

Apirilaren 2an hasita, 'Euskal gozogintza' ikastaroa jubilatuta eta pentsiodunentzat, Kutxa Fundazioaren Aula 3k antolatuta. Murumendi Pelotazale Elkartean. Egunak: 2, 3, 10, 11, 17, 18, 24 eta 25, 16:00etatik 18:00etara. Kuotak: 3.500 pezeta Kutxako bezeroek, 4.500 bezeroak ez direnek. Izene-mateak Kutxako bulegoetan.

Apirilaren 15ean hasita, astelehenetan, 16:30ean, 'Elikadura eta osasuna'ri

buruzko ikastaroa. Izene-matea eta informazioa Asmuben.


Apirilak 16an hasita, zeramikazko panpinen ikastaroa, asteartetan 16:00etatik 18:00etara. Informazioa eta izenematea Asmuben.

IKUSENTZUNEZKOAK

✓ Beasain:

Martxoak 29, Nekane Insaustiren 'Secretos de los glaciares de Chamonix' diapositiba-bildumaren emanaldia Aizkorri Mendizale elkartearen, 20:00etan.

ERAKUSKETAK



✓ Ordizia:

Apirilaren 3ra arte, 'Donostia zintzilikari batetik' izeneko akuarela erakusketa Blanca Villanuevaren eskutik.

✓ Beasain:

Apirilaren 12ra bitartean, Pello Etxekarren erakusketa, Aterpe Tabernan.

Apirilaren 13tik maiatzaren 3ra arte, Santi Iruretagoienaren erakusketa Aterpe Tabernan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Martxoak 31, Lizarraustitik Beasainera.

Beasaingo erretiratuen mendi-ibilaldiak:

Martxoak 30, Beasain-Arriarango presa-Beasain.

Idiazabalgo mendizaleak:

Apirilak 14: Etxegarate (orientazio ibilaldia).

Ordiziako mendizaleak:

Martxoak 31, Tolosa-Lekunberri.

Apirilak 14, Frantserreka-Aldaon-Amezketara.

GOARDIKO BOTIKAK

Martxoak 29: Laurnaga; **30-31**: Urbizu; **Apirilak 1**: Cuesta; **2**: Arriola; **3**: Urbizu; **4**: Atorrasagasti; **5**: Azpilikueta; **6-7-8**: Jauregi; **9**: Laurnaga; **10**: Cuesta; **11**: Arriola; **12**: Urbizu; **13-14**: Azpilikueta; **15**: Atorrasagasti; **16**: Azpilikueta; **17**: Jauregi; **18**: Laurnaga; **19**: Cuesta.



Erramua

Horixe izan zen nagusi, Erramu igandea gainez izanik. Neurriaren arabera, 25-100 pezeta artean saldu zen. Uda-berriko ziza batzuk ere azaldu ziren, 137 gramo (kiloa 16.000n). 152 Arkume saldu ziren, 425-450 pezeta bitartean kiloak. Bertako kiwiak bukatu dira. Errezil sagarra 700eraino iritsi zen.

Joan zen asteazkenean, negutegiko ilarrak, 600ean kiloak, eta lorak izan ziren protagonista. Geranioak 250-350ean saldu ziren eta hiedrak garesti-gego, 275-350ean.

Kanpokoetan behera egin zuten prezioek, laranjenak eta lekenak izan ezik. Hauek 125-225 bitartean saldu ziren; lekak, 700-800ean. Gainerakoan, marrubiak 450-500ean; azalora 250-300ean; piper gorria 350-400ean; eta piper berdea 375-400ean.

Arrainetan antxoak 1.050 pezetan saldu ziren.

Apirilaren 10eko **azoka berezia** izango da. Idiazabal Gaztaren denboraldi berriaren aurkezpena egingo da Pedro Subijanaeren eskutik. Aharien erakusketa eta salmenta, trikitilariak... izango dira.

SUKIA-ESNAOLA S.L. GARRAIOAK

☎ 18 00 52 - 908 14 30 14
Taberna Etxeberri
ATAUN (San Martin)

OLAGI

sagardotegia

Sagardotegiko afariak
Enkarguz bazkariak
eta ospakizunak

☎ 88 77 26

ALTZAGA



IKASTEK AKADEMIA

- Maila eta arlo guztiak
- Laguntza pertsonalizatua
- Kalitatea eta esperientzia

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5

BEASAIN



Maite Riaño (Hezi Kolektiboko kidea)

Hezi Kolektiboa 1992an eratu zen lurrik gabeko erakunde moduan. Bertan parte hartzeko aukera edozein gazte nahiz profesionariri irikia dagoelarik.

Oinarrizko helburuak, gazte langabetuei formakuntza, orientabide eta motibazioa landuz beraien ekimena, okupazioa eta partehartzea bultzatuz Sarketa Soziala (Inserción Social) lortzea da, era berean, lan munduaren ezagupenaren bidez Sarketa Laborala (Inserción Laboral) erraztu.

1993. urtean Araña (Gazteon Enplegurako Elkarleen Sarea)-n sartzen gara, honek estatuko 13 Elkarle Autonomikoetan presentzia duela-rik.

Araña-n gauden erakunde-
deen elkarlanaren ondorioz
Labora deritzogun programa
amankomuna lantzen dugu.
Oinarrizko lan modua finka-
tzeko erabiliz, hau da, era-
kunde bakoitzak bere erreali-
tatera moldatzen du, logikoa
den bezalaxe lurralde bakoit-
zak egoera ezberdin bat bizi
du.

Laboraren bidez, enplegu
eta ekimen norabidera zu-
zendutako banakako eta tal-
dekako kontsultak lantzen di-
tugu honela, Lanbide Helbu-
rua finkatuz. Izakeraren al-
daketaekin batera horrek
bait du garrantzi gehiena.

Edozein gazteri zertan

Gazteon enplegu sustapenerako zentrua

gustatuko litzaiokeen lan egi-
tea galdetu ezkeror, edozein
gauzetan izaten da erantzun
nagusiena. Arlo ezberdinak
lantzen goazen eran hori ez
dela horrela konturatzen doa.
Ez dugu edozein lanbiderako
balio, ez dugu edozertan lan
egin nahi, mugak guk jartzen
jakin behar dugu.

Okupatua egotea garran-
tziatsua da, baina ez da nahi-
koa. Lanbide helburura fin-
katuta eduki ezkeror gure
formakuntza, esperientzia,
heziketa etabar ildo beretik
joango litzateke, honek gure
curriculumak aberastuz.

Behin finkatuta dugunean
(helburu profesionalari buruz
ari naiz) bi aukera ezberdinen
aurrean aurkitzen gara. Bat,
beste edonorentzat lanean
jartzea (Cuenta Ajena) hor-
tarako teknika batzuk eduki
behar ditugularik lan mun-
duan modu egokian barnera-
tzeko. Eta bigarren aukera be-
zala zure kabuz ipintzea da,
hau da, Autoenplegua. Bu-
ruan bueltaka dugun ideia
hori ez badugu ongi aurrera
eramaten, ezagutzen ditugun
hainbat proiektuen antzera
porrot egin dezake. Burutze-

ko garaian, jarraitu beharreko
urratsak zehatz mehatz jakin
behar ditugu. Hezi Kolekti-
boak ez du soilik horren
aholkularitza egiten baita la-
guntza eta jarraipena ere.

Hemen parte hartzen du-
gun pertsonak borondate
osoan lan egiten dugun gazteak
gara. Bertan aurkitu daite-
keena ez da soilik ekintza eta
informaziorako bide ezber-
dinak, hau da, beka, ihardu-
naldi, SIPES, Europa maila-
ko programa eta abar. Gure
formakuntzarako baliogarria
ere izan daiteke, arlo askotan
lan egiteko aukera zabala da-
go, bakoitzak non eta noraino
eman nahi duen erabakitzen
duelarik.

Langabeziaren kontra jo-
tzeko garaian, Erakundeak,
Entrepresa Publiko eta Pri-
batuak, Administrazioa, Ko-
munikabideak, E.I.N.
(I.N.E.M.) eta guztion arteko
elkarlan bat, nahi eta nahiez-
koa da. Elkarlan honen on-
dorioz Hezi Kolektiboa -
Araña Ordizian Dorre
Etxeako 2. solairuan finka-
tuta duen Gazteon Enplegu
Sustapenerako Zentruan es-
keintzen diren dohaineko
zerbitzuak aurrera eraman
daitezkeelarik.

Gure bulegoa egunero da-
go zabalik 10etatik 1etara,
arratsalde ere bai baina beti
ere aurrez deituta 16 13 63
telefonora.

*“Lanbide
helburura
finkatuta eduki
ezkeror gure
formakuntza,
esperientzia,
heziketa etabar
ildo beretik
joango litzateke,
honek gure
curriculumak
aberrastuz”*

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070
BEASAIN



GESTORIA BIOK

(BANDRES)
ASEGUROAK

AHOLKULARITZA LABORALA ETA FISKALA
JUBILAZIOA, BIZITZA, ETXEBIZITZA
ETA KOTXE ASEGURUAK

Goierri, 12
behea

ORDIZIA

☎ 88 44 00
88 12 58

Laguntzailea izatea zer den...

Jakin dut, Ordizian joan zen urtarri-laren batean egitekoa zen bertsolari jaialdia, bertan behera geratu zela zergatik eta, kiroldegiko udal langileek ez zutelako lanik egin nahi egun horretan.

Oso desio juxtua iruditzen zait udal langileena; eskubidea daukate, besteok bezala, aurrez erabakitako jaiak hartzeko eta kitto! Baina, baitere jakin dut, Argiberri Elkarteak prest zegoela antolaketa eta hango lan denak bere gain hartzeko eta elkarte hau ezagutzen dugunok, badakigu ongi beteko zituela gainera. Hala ere, ez zen jaialdirik burutu. Zergatik?

Nik uste, herri askotako arazoa, gure polikiroldegiei eta pelotalekuei, erabilpen urria ematearena dela eta asko kostatzen dela mantentzea aprobetxatzen dugunerako.

Ez al zen jaialdi hori eginda hobeto aprobetxatuko kiroldegia, hutsik zegoenez eta, inori ordu gehiago sar arazi gabe bere borondatearen kontra? Zerk eragotzi zuen saioa burutzea, borondate ezak, burokraziak (Honek hari esan, hark ez du erantzun, nik ezin dut zer egin hark esan gabe...), garrantzirik ez emateak saioari, kultur ekitaldi hauek askotan agintarientzako inkomodoak direlako...

Azkenik, aurreko saio batean, Argiberri udalari milioi laurden inguru eman ziola uste dut, han ateratakoa...

✍️ Iñaki Murua

Ba al duzu animaliarik etxean?



Lierni Iztueta
19 urte, ikaslea
ordiziarra

Txoriak bai. Toki handia edukiz gero, baserria edo... ondo ikusten dut txakurrak eta horrelako animaliak edukitzea. Baina leku txikietan ez.



Alaitz Goikoetxea
18 urte, ikaslea
idiazabalدارra

Txakurra eta katua dauzkat. Ondo portatzen dira, lagun onak dira, batera lo egiten dute. Lekua behar dute, batez ere katuek.



Juan Mari Galparsoro
36 urte, irakaslea
segurarra

Ez zaizkit gustatzen animaliak etxean edukitzea. Leku txikietan eta barruetan gaizki egoten dira. Gure komenientziarekin jokatzeko dugu, nahi dugunean atera...



Aholkua



Sarritan idazterakoan egiten ditugun akatsak zuzentzeko erabiltzen den tinta zuriak hitzegitara gatzokizue. Egunerokoa den produktu honek natura hondatzen duela eta luzarora garuneko minbizia sor dezakeela jakinik, beraren erabilera gutxitzea eskatzera gatzok. Tricloroetano izeneko sustantzia da guzti honen eragilea eta sustantzia hau ez duten tinta zuriak badaudenez, beraien erabilera gomendatu eta eskatzen dizuegu (gogoratu "Tipp-ex" markak sustantzia hori baduela baina hau marka bat soilik dela eta badaudela beste asko merkatuan produktu kaltegarri hori ez dutenak). Honenbestez, kaso egingo diguzuelakoan, hurrengo arte.

Lazkaoko San Benito Ikastolako BBB Ieko ikasleak



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN

OSKARBI
OINETAKOAK



*Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.*

Kickers



K. Nagusia, 25

88 19 44

ORDIZIA

JOSUNE
ESTETIKA ZENTRUA



* Tratamendu bereziak:
aknea, liftinga, estimulazioa
eta makilaje iraunkorra..

* Kontsulta medikua:
gizentasuna, barizeak,
liposukzioa eta zirujia
estetikoa..

*Zure erkontza egunean
diztira egon zaitez
tratamendu guztiak ditugu.*

J.M. Barandiaran Plaza, 3

88 28 88

ORDIZIA

Ba al dakizu?

GOIERRITARRAK

ATSEDENALDIA hartuko du Lazkaoko jaiak bitartean. Aldaketak eta berrikuntzak egiteko asmoa dugu, beti ere GOIERRITARRA aldizkaria hobetearren. Aste Santuko oporraldi-txoa aprobetxatuko dugu lan horretarako. Beraz, eragozpenak barkatu eta laster arte.



TXINDOKI SUTAN. Horrelaxe ikus zitekeen joan zen igandean, martxoak 24, Txindoki. Sutearen arrazoiak ez ziren ezagutzen informazio hau idazterakoan. Txindoki azpiko pinudiak hartu zuen sua. Sutea hasi ondoren egin zuen euriak, sua itzaltzen lagundu zuen.

EZKIO-ITSASOko Zodiak dantzalekuan droga sarea desegin zuen joan zen igandean hasita Ertzaintzak. 5 lagun atxilotu zituzten, tartean Beasain eta Lazkaoko bi lagun. Speed-a, kokaina, haxixa... atzeman zituen Ertzaintzak, bai dantzalekuan, bai atxilotuetako baten etxean, Barne Sailaren informazioaren arabera.

ERTZAIN BATEN KO-

TXEAaren aurkako eraso izan zen Ordizian, martxoaren 16tik 17ra bitarteko gauean. Trenbidean suzko barrikada bat ere piztu zuten zenbait ezezagunek. 'Egin' egunkariari egindako dei anonimoaren arabera, Ertzaintzak errepresioan duen inplikazioarengatik eta euskal preso politikoen berbatutzea eskatzeko egin ziren bi ekintza hauek.

SALAKE-

TA aurkeztu du Josu E.A. gazte ordiziarrek Donostiako Guardia Epaitegiaren aurrean. Aurrez aipatu dugun ertzainaren autoak eraso jasan ondoren, dei anonimoak eta jazarpen poliziala jasaten ari dela salatu du Josu E.A. gazteak.



PRESOEK TXAPEOAri ekin diote, behin gose greba bukatuta-koan. Hau da, 24 orduz, euren zelde-tatik atera gabe egongo dira. Txapeoan dauden goierritarrak hauek dira: Iruñeako kartzelan dagoen Mikel Zumarraga ormaiztegiarra, eta Logroñoko kartzelan dauden Agustin Cortes ordiziarra eta Pilar Gabirondo ezkiotarra. Protesta hauekin, euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten eskatzen dute.

ORDIZIAKO ALKATEA, Juanbi Erauskin, hasarre azaldu zen Frantziako 'Le Figaro' egunkarian Or-

dizia eta ETari buruz esaten zenagatik. "España: Ordizia ETaren santutegia" titulua zuen artikulua. Azpigitulua, berriz, "Oria bailarako herri honetan biztanlegoaren gehiengoak erakunde separatistaren borroka onartzen du inplizituki". Erauskinak adierazi duenez, "artikulu honen berri jakin duten ordiziarrek amorrua eta inpotentzia sentitu dute".

BEASAIN-DURANGO

errepideko lanen beste fase bat jarri dute martxan. Ormaiztegiko Alegi auzorainokoa izango da eta inguruetan lur mugimendu handiak ikus daitezke, argazkian ikus daitekeen bezala.

GALVANOTECNIA

CUELLAR, Lazkaoko enpresaren aurkako akusazioa bertan behera utzi du fiskalak. 1994an maiatzaren 5ean, ekainaren 15ean eta uztailaren 15ean, neurritz kanpoko zianuro isurketak atzeman ziren Agauntza errekan. Arrain gehienak hil egin ziren. Laz-

**JAUREGI
TOLDOAK s/n**

Tfnoak: 880243 - 880133
BEASAIN

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

**Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN**

kaoko Udalak aurkeztu zuen salaketa. Epaiketaren aurretik, milioi bat pezetako isuna eskatzen zuen fiskalak. Damian Sarasola enpresako gerenteak fiskalari adierazi zionez, gertatu zenaren justifikazioa ur eskasia izan zitekeen.



HIPIER

OLABERRIA. Hilabete eskas falta da Unialcok Hiper Olaberriarekin duen kontratua amaitzeko. Itxura guztien arabera, Pryca etxeak hartuko du Hiper Olaberriaren ardura.

CAFek iaz 1.925 milioi pezetako irabazi garbiak izan zituen, 94an baino % 6,8 gehiago. Fakturazioa 43.253 milioikoa (% 7,6 gehiago) izan zen eta guztira 1.176 milioiko inbertsioak egin zituen.

ONCEko SARIA banatu zuen martxoaren 13an Josefa Rodriguez ordiziarak. Guztira 50 milioi banatu zizkien bezeroei eta berarentzat 2,5 milioi. Azken 15 hilabete hauetan ONCEko hiru sari banatu ditu ordiziarak.

ORDIZIANEN GALA arrakastatsua izan zen. Jende ugari inguratu zen Ordiziako Majori kiroldegira martxoaren 23 eta 24an. Lehendakariaren emaztea, Gloria Urteaga eta Mari Karmen Garmendia Kultura sailburua izan ziren inaugurazioan. Antolatzaileak gustora gelditu ziren jendearen harrerarekin.

FURUNDA musika talde berriak lehen diskoa kaleratu du. Aitor Furundarena akordeoi jolea da taldearen buru. Musika garaikidea eta klasikoa aldera batera utzi eta "erromeria akustikoa" biltzen duen diskoa osatu du taldekide dituen Urbil Artola eta Javier Arearekin batera. Dantzarako musika, zuzen-zuzena eta erritmo biziakoa da diskoa. 15 kantu ditu.

ORDOÑEZ

FUNDAZIOAren idazlan lehiaketan Ekaitz Goikoetxea eta Maider Alcalde beasaindarrak sarituak izan dira. Ekaitzek 2. saria jaso zuen 'Adreiluz Adreilu, Pakea eraikitzen' idazlanarekin, euskarako atalean. Maiderrek 3. saria jaso zuen, 'Lagunarteko asteburu bat' lanarekin.



JOSEBA IPARRAGIRRE

soinujole idiazabaldarrak bigarren egin zuen Euskadi Irratiak antolatutako Trikiti Pieza Berrien txapelketan, arin-arin sailean. Aitor Letamendia beasaindarrak, (Harkaitz Lasa panderojolearekin batera) berriz, porrusalda atalean, 3. egin zuen; eta arin-arin sailean, laugarren.

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfnº: 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)

LOINATZ Taberna Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ¢ 88 20 07 BEASAIN

Gaseosa

La Casera 1,5 l85

Ardoa

Don Simon (beltza)..150

Garagardoa

Keler 1 l105

Lejia

Neutrex 1 l80



1915etik



resti

HIJOS DE URTEAGA CB

Nafarroa Etorbidea, 15 BEASAIN ¢ 88 09 77

Briketak: zerrautsaz egindako erregai naturala. Garbia, erabilgarria eta gordetzeko erraza.

14 Kg.....400 pzta

Ikatz begetala Kg. 180 pzta

Sua pizteko pastila naturalak

Paketea175 pzta

Urtero bezala, hasiak dira Segura aldean Aste Santua prestatzen. Dagoeneko egitaraua eginda, bakoitza bere arduretan ari da: antolatzaileak propaganda banatzen eta ardura guztiak ondo lotzen; soldadu kornetajoleak entsaiatzen; korua eta txistulariak beren kantu eta doinuak prestatzen; iazko San Migel, Ibai Telleria, aurtengoari, Mikel Imazi, pausoak erakusten; santu eramaleak jenderik beharko ote duten aztertzen; beletako txandak egiten; aingeru jantziko direnen

gurasoak, jantziak gordetzen; santu eta gainerakoen arropak aireztatzen; monagilo, nazareno eta penitente, zein zertaz erabakitzen... Pilar Albaittero zenanekoak ere begiz jota izango ditu "Orazioa"ri jarriko dizkion loreak, eta Ximon Zirenetarra, zakua burutik noiz kenduko dioten zain egongo da honez gero.

Baina badira Aste Santuaren inguruan, berreskuratzen zailak ez diren, galdutako ohiturak:

DUELA 40ren BAT URTE GALDU ZEN OHITURA Barrabas jotzea, Asteazken Santu egunez

Egungo herritar askok ezagutu eta bizi izandakoa, Asteazken Santuz (Barrabas eguna), arratsaldeko 4ak aldera, maitinek, bezpera modukoak kantatzen ziren eliza ilunpetan zela. Argi bakarra, aldare eskubian jartzen zuten murkuila, edo gazteleraz "tenebrario" deitutako kandelabrotzarreko 15 kandelak ematen zuten. Kandelak, salmoak bezalaxe, 15 ziren. Salmo bakoitzaren amaieran, sakristauak kandelak bat itzaltzen zuen kañabera txapeldun batez.

Bitartean, ordea, herriko neska-mutikoak, ate haundiz kanpotik egoten ziren, norberak bere mazoa eskuan zuela, irrikitzen, azken kandelak noiz itzaltuko zain. Ate zuloetatik kirikakak, "bi falta direla!", "bat gelditzen dela!", az-



Pare honetan jartzen zuten tenebrarioa Asteazken Santuz.

kena itzaltu orduko, arrapastaka elizara. Sartuta bertan dagoen Errosario aldare aurrean, eserita edo belauneko jarrita hasten zuten beren "Barrabas festa":

*"Barrabas!, bribolin!, Judas!,
Satanas!, poltsero!,
Dirurik ez ta lotsero!,
Jo!, jo!, jo!."*

Leloa kantatzeaz bat, "Barrabas!, Barrabas!", oihukatuz, harrizko zorua mazoz jotzeari ekiten zioten. Mazo hotsei, karrakatarren batena ere gehitu izan zitzairen, egundoko mazo dantza eta burrundara sortaraziz. Bost minutu edo, iraun behar izaten zuen ikuskizunak. "Bale!, bale!" -Xeapio Intxaustik, Barrabas jotzea zuzendu zuen azken

BIOK

apaindegia

- ◆ Ileapaindegia
- ◆ Estetika
- ◆ Solariuma

Zurbano, 19 ☎ 80 00 02
SEGURA

ARANBURU

HARATEGIA

Nagusia, 34
SEGURA ☎ 801014 - 800141

SANTA BARBARA

Karrozategia

Juan Mari Oiarbide

Kale Nagusia ☎ 801160
SEGURA

IMAZ Jatetxea

- ◆ Eguneroko bazkariak
- ◆ Karta

Kale Nagusia, 27
☎ 80 10 25

SEGURA



Penitenteak Kale Nagusian behera.

sakristauak-. Baina zeinek gelditu zalapartara hura? Beste bost, hamar minutuz jarraitzen omen zuten, mazoak txikitzeraino ere bai. Hala, hurrengo urterarte.

Herriko zaharrenek diote, gizaldi hasieran, aldare inguruko harrizko zoruan jotzen zela Barrabas, eta bertan egurrezko oholtza jarri zenetik pasa

zela Errosario aldare aurrera.

Ez zen herriko Barrabas jotze bakarra, orde. Axun Auzmendik dioenez, Komentuko mojak ere, Asteazken Santu egunez, "benedictus" salmoa bukatzean, silaz jotzen zuten, garai batean, koru zorua.

✍ Joseba Telleria

Martxoak 31, Erramu igandea:

11:45ean erramu bedeinkatzea.

12:00etan Meza nagusia.

Apirilak 4, Ostegun Santua:

17:00etan Jaunaren afariko meza. Ondoren prozesioa.

Apirilak 5, Ostiral Santua:

8:00etan Gurutz bidea Santa Engrazitik komentura.

16:30ean Jaunaren nekaldiaren ospakizuna. Gurutzetik jaistea eta **18:15etan** prozesioa.

Apirilak 6, Larunbat Santua

komentuan **20:00etan**.

Apirialak 7, Pazko eguna,

12:00etan.

ELORRIPE
edartegia

☎ 801002

SEGURA

Giro
atsegina
eta
pintxo
bereziak

Antenine
Zurbano Kalea, 10
20214 SEGURA (Gip.) 80 04 16

JUAN MIGEL LARREA

ETXE TRESNAK

Unzurruzaga, 5
SEGURA

☎ 801174

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

**EROSLE
GOIKO**

- Ordiziako Gazta Txapelketako irabazlearen gazta
- Etxeko arkumeak
- Bertako haragia

Zurbano, 8

☎ 80 03 26

SEGURA



SEGURAKO UDALAK herritarrok Aste Santuko ospakizunetan parte hartzera gonbidatzen zaituzte eta aurrez zuen betiko lan jatorra eskertu.

Seguraz kanpoko bixitari guztiei gure ongi etorria!

9.30etan: Jaialdia: Body Count, Negu Gorriak, Zebda eta Dut. Karpan.



EUSKAL ARTISAUTZAREN DENDA GOIERRIN

Erakusketa eta salmenta iraunkorr



Juan ELGARRESTA
Prudenzio JAUREGI
Antonio ORDOZGOTTI
Manuel IGLESIAS
Lurdes ORMAZABAL
Joxe ALBIZU
Domingo GOIBURU
Aitzol TELLERIA
Inaxio BARRIO
POTT
Eugenio ELORTZA
Xanti ILLARRAMENDI
Pedro Mari GALPARSORO
Agustin LEGORBURU
Julita LASA
M^a Karmen MENDIZABAL
Xanti GOIBURU
Nikolas ZURUTUZA
Juan APAOLAZA
Juanito OIARBIDE
Joxe AGIRRE

Abarkak ♦ Gabiria
Pilotak ♦ Lazkao
Saskiak ♦ Ormaiztegi
Eskultura ♦ Lazkao
Egur tallak ♦ Segura
Harigintza ♦ Zegama
Albardak ♦ Idiazabal
Egurra ♦ Zerain
Danbolinak ♦ Urretxu
Keramika ♦ Ezkio-Itsaso
Argizaria eta kandelak ♦ Segura
Keramika ♦ Usurbil
Zumea ♦ Segura
Eskuareak ♦ Segura
Galtzerdiak ♦ Zerain
Gantxiloa ♦ Zerain
Harigintza eta txaratilak ♦ Segura
Makilak ♦ Zerain
Trailak ♦ Zerain
Xisterak ♦ Segura
Gaztagintza materiala ♦ Lazkao



*Zerain proiektua Goierriko kultura eta izakeraren alde.
Goierriko ofizio tradizionalak berreskuratzen ditugu
erakusketa iraunkor batean*

MANDIOAN, INFORMAZIO ZENTRUAN
Zeraingo Herri Plazan

☎ 80 17 05 ♦ 80 15 05

Faxa: 80 16 06

Arrantzarako sasoia bete-bete

Martxoaren 16an ireki zen arrantza garaia. Ibaietan uztailaren 31ra arte egin ahal izango dute arrantza Gipuzkoako 12.000 lizentziadunek. Urtegietan irailaren 30eraino luzatuko da epea. Goierri aldeko erreken oreka ekologikoa ona da adituen esanetan, urtero egin diren errepoblatze programak direla eta. Urtero 500.000 amuarrainkume botatzen dituzte Gipuzkoan.

Goierri Amundarain, Agauntza, Oria, Ursuaran eta Estanda errekek dira, besteak beste, arrantzaleen gustokoenak. Guztira 40.000 amuarrainkume bota dituzte. Lareo eta Arriarango urtegietan ere, bada arrantza egiteko aukera. Dena den, arrantzarako kotoak dira bi hauek. Zozketa bidez lorturiko baimen bereziekin arrantzan egiteko lekuak izendatuak ditu Arrantza federazioak. Beasaingo Aitz-zorrotz Arrantza eta Ehiza elkarteak egiten ditu zozketak, hamabostero, arratsaldeko 7.30etan.

Kotorako zozketa egunak

Zozketa egunak hauexek izango dira: apirilak 2, 16 eta 30; maiatzak 14 eta 28; ekainak 11 eta 25; uztailak 9 eta 23;



abuztuak 6 eta 20; eta irailak 3 eta 13. Lareorako 10 baimen zozketatzen dira eguneko; Arriarango 15. Zozketa hauetan parte hartzeko urte hasieran egin behar zen eskaria Arrantza Federazioan. Asteartetan izan ezik, egunero arrantza daiteke urtegietan.

Arriarango presan debekatua egon da urtebetez arrantzatzea. Bertara 12.000 amuarrainkume bota zituzten eta neurri egokia lortu bitartean debekatua egon da. Aurten, ordea, bai. Araudiaren araberako neurria lortu omen dute.

20 eta 22 zentimetro

Neurriak aldatu egiten dira errekatik urteigira. Toki librean, 20 zentimetro behar ditu gutxienez amuarrainak, etxe-

ra ekarri ahal izateko. Kotoetan, 22 zentimetro. Bestalde, arrantzaleek ez ditzakete egunean zazpina amuarrain baino gehiago harrapa.

Arrantzarako lizentzia eskuratzeko ez dago adin mugarik, edozein neska-mutikok atera dezake eta hori izan daiteke azken urte hauetan arrantzaleen ugaltzearen arrazoi bat. Lizentzia bakoitza 820 pezeta kostatzen da.

Arrantzale furtiboarena arazo handia da Pedro Inazio Tolosa, Gipuzkoako Arrantza Federazioko presidentearen esanetan. Baina federazioak ezin omen dezake ezertxo ere egin. Arrantzale zintzoek beraiek hartu behar dituzte neurriak horrelakoen kontra. Ohizko kasuak hauek izaten dira: debekaturiko lekuan arrantza egitea, eskuz harrapatzea eta neurria iristen ez diren amuarrainak gordetzea.

Txapelketak

Arriaran eta Lareo, Gipuzkoa mailako bi txapelketen leku izango dira. Martxoaren 23an Lareon, infantil mailako txapelketa jokatu zen. Martxoaren 31n, Arriaranen, beteranoena.

 **Rufino Iraola - L.A.**



OTATZA SAGARDOTEGIA

Egunero zabalik
Sagardoa botilatan salgai

☎ 80 1 7 57

Olatza baserria

ZERAIN

Jose Mari Sukia Izaskun IGELTSEROA

☎ 18 00 52 - 908 77 45 53

Taberna Etxeberri
ATAUN (San Martin)

EROSKI KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

Udal Ostatua, Julio Rivasi eman zaio bost urterako

Julio Rivas sukaldari ezagunaren sukaldaritza dastatzeko moduan izango gara zegamar eta goierritarrok Aste Santuak aldera. Joan den martxoaren 13an ospatutako Gorporazioaren Osoko bilkuraren erabakiz, Julio Rivasi eman zaio Udal Ostatuaren ustiaketa.

Julio Rivas 1962ko abenduaren 31n jaio zen. 14 urterarte Zegamako Eskolan ibili ondoren Donostiara joan zen lanera, berari benetan gustatzen zitzaiona sukaldaritza baitzen. 14 urterekin hasi zen Donostiako Beti Jai jatetxean sukaldari bezala, bertan aritu zelarik 21 urte zituen arte esperientzia bikaina jaso. Handik Juanito Kojua jatetxera joan zen bi hilabeterako. Ondoren, 22 urterekin Portu Etxe jatetxera joan zen, bertan 4 urtez aritu zelarik sukaldaritzan. Jarraian beste 4 urte Hotel European eta azkeneko urtean Lanciego jatetxean ibili da.

Besteak beste, 1992ko Olinpiadatan Bartzelonan izan zen Euskal Sukaldaritzaren ordezkari bezala. 1994an, 'Cocina en Miniatura' deritzan, pintxoetan alegia, originaltasunaren lehenengo saria jaso zuen.

Donostiako jatetxeetan ezaguna den arren, betidanik izan du bere herrira itzultzeko irrika, eta esan, Udalak



Julio Rivas.

emandako aukera hau ilusioz beteta jaso duela, bere sukaldaritzaren garapena Zegamen burutzeko aukera ezin hobea duelako 5 urtean zehar.

Jatetxearen antolaketari bagagozkio, bere asmoa, zegamar gazteak hartzea da. Berak adierazi digunez, jatetxean bi karta modu izango ditu: Karta Egonkorrara, urte osoan eskaini daitezkeen janariez hornitua. Eta Karta Mugikorra, denboraldi bakoitzeko janariak eskainiz. Honez gain Egunekeo menua izango du astegunerako.

Besteak beste, honako aukera hauek izango ditugu: espinaka eta ganbaz betetako linguadoak; barazkien tulipaz betetako berenjena beteak; txangurroz

betetako piperrak, legatza sagardo era, barazki tartak... Haragietan, solomiloa Roquefor erara, piper berdeekin, eta noski, Zegaman betidanik ospea izan duen txuleta. Entsaladetan, Julioaren entsalada bereziak: foiezko entsalada, bogabante entsalada eta era guztietako entsaladak.

Aste Santuan ireki

Oraindik antolaketa lanetan ari denez, ez daki ziur zein egunetan irekiko duen, baina Aste Santuan ireki ahal izango duela uste du. Dena den herriko kronikan nahiz Segura Irratian jakitera emango duela adierazi digu. Erreserbak egiteko telefonoa: 80 12 99.

Beraz, zorte ona Julio, eta zorionak Zegama!

Eskertza

Zegamako herriak, GOIERRITARRA aldizkariaren aukeraz baliatuz, Begoña Etxezarretari bere eskerronak eman nahi dizkio, 10 urtean zehar Ostatu jatetxearen ustiaketa burutuz, herri honi emandako zerbitzuarengatik.

Edurne Albizu

VOLVO
TOYOTA
ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumaraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 80 10 66
80 10 70 (Etzea)

Olaberria Kalea, 6
ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Osaki belardendan, Igartzia Oletako kioskoan, Begue janaridendan, Montoia harategian, Eroslen.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardendan, Muño denda Urdanetan.


Zegaman: Kooperatiban, Maria Jesusen denda, Arrondon.

Segurako Erosle eta Idiazabalgo Alda-
nondon.

Joakin Aldanondo
BULKANIZATUAK

Gurpil lanak, alineazioak
filtroak, olioak, engraseak
frenu pastila, tubo escape, bateriak

Errota Poligonoa (IDIAZABALgo sarreran) ☎ 80 02 57



Goya pintorearen erroak Zerainen bertan

Larunbatean, martxoaren 30ean, betekoa dira 250 urte Francisco Goya margolaria jaio zela. Aldizkari honek ere badu tarterik urteurren honek. Zergatik? Margolariak zeraindar "zati" bat baduelako. Abizena bera Zeraindik datorkio.

Margolariaren birraitona eta honen aita ere, zeraindarrak ziren. Pedro Goya eta Mariana Etxeandia legorretarra Zerainen ezkondu ziren 1567an. Hauen seme Domingo Goya izan zen erroak zabaldu zituenak. Mantxola baserrian jaio zen Domingo 1578an. Hargina zen, elizak egiten zituen. Fuentes de Jilokako eliza egitera abiatu zen Zeraindik. Eta hantxe ezkondu zen Maria Garikanorekin, 1626an. Domingo Goya Fuentes de Jilocara joan zenean, bere amaren abizena erdaldundu eta Villa Mayor izena jarri zion Etxeandiarren ordez.



Ezkontza horren ondorengoa izan zen Jose Goya. Zaragozan jaio zen hau. Lucientes abizena zuen emakume batekin ezkondu eta orduan jaio

zen Francisco Goya margolaria. Fuendetodosen jaio zen, 1746ko martxoaren 30ean.

Urteurrena ospatzeko urtean zehar hainbat ekitaldi egingo dira. Zerainek ere parte hartu nahi du eta pintorearen jaioterriarekin. Fuendetodosekin, harremanetan ari da. Oraindik gauzak zehaztu gabe daude baina, bi herrien arteko elkarlana bultzatu eta anaikidetza egin nahi da. Era berean, Fuendetodoseko, Zeraingo eta Zumaiaiko Zuloaga museoen artean sustapen lana egin nahi da elkarrekin. Zuloagak Goyaren Fuendetodoseko jaioetxea erosi zuen eta bertako herritarrekin harreman sakona izan zuen. Bestetik, Herri Museoaren aurrean dagoen Francisco Goyaren eskultura, plazara eraman nahi da, udazken aldera. Xabier Arrietak egindakoa da eskultura.

IDIAZABAL

Herri Eskolako haurtxoek badute lehen etxea

Herri Eskolan, Eskolaurre edo Haur Hezkuntzan, "txokoetan" lan egin da azken 10 urteotan. Hau da, jostailutegian (puzleak, enkajeak, eraikuntzak, bloke logikoak...), margotegian (pintzelak, kola, margoak, paper mota desberdinak, orri txurika, txulatzeak, arkatzak, plastilina...) eta antzerkian (ipuinak, jantziak, dominoak, kareta, aurpegirako margoak...). Hemendik aurrera, beste "txoko" bat gehiago izango dute haurtxoek aukeran: etxea. Jantziak, panpinak, sukaldeko tresnak, ontziak, telefonoa, sehaska, janariak... etxean izan ohi diren tresnez osatua.

Gurasoek egin dute zurezko etxea. Argazkian duzuen horixe da. Bi solairu ditu. Haurtxoek oso gustora hartu dute "txoko" berria eta irten gabe hantxe egoten omen dira.

Etxearen helburua hau da: haurra-



ren barne mundua jolasaren bidez azaltzea; etxean dauden gauzak baloratu eta zaindu eta dagokion tokian gordetzen ikastea; jolasean helduaren mundua imitatzea; harremanak arautzen hastea, sozializazioa; matematika, manipulatu eta biziz lantzea.

Etxeaz gain eszenatokia ere egin dute. Entsaioak egiterakoan kortinak ematen duen intimitatea, misterioarekin.

Txokoetan lan egitearen abantailak hauek dira:

- Sistema honen oinarri metodologikoa haurren interesetatik abiatzea da; hau da, jolasa eta helduaren mundua imitatzea.

- Txokoetan lan egiteak lan indibidualizatua egiteko aukera eskaintzen du. Ikasle bakoitzak bere maila eta erritmoan egiten duen lanari deitzen zaio lan indibidualizatua.

- Haur Hezkuntzan dauden helburu eta edukinak lantzea posibilitatzen du, batez ere nortasuna eta autonomia pertsonalaren eremukoak.

- Haurrak talde eta txokoetan banatuta egoteak, behaketa egitea erretzen dio irakasleari.

- Sistema honen printzipioa da: "ez dezala irakasleak, haurrak bere kabur egin dezakeen ezer egin".

Gazte asanblada indarberriturik dator

3 urte ondoren, "martxan jarri" da Gazte asanblada. Otsailaren hasieran bilera orokorra deitu, 40 bat lagun elkartu, indarberritu eta ekintzaz beteta dator. Udalarekin konbenio sinatu du. Urtean 4 kontzertu, 2 hitzaldi eta 7 ikastaro egiteko dirua emango dio BGARI. Guztira 820.000 pezeta. Ekintza guzti hauez gain, besterik egingo dute: mendi-irteerak, futbolin txapelketak... Legalki, asteartean legalizatu zen.

Plaza azpian egingo dituzte gazteek ekintza guztiak. "Plaza azpia Gazte asanbladarena izatea nahi dugu. Gazteak bertara joan eta bertan zerbait aurkitzea nahi dugu", esan digu Unai Agirre Gazte asanbladako kide batek. Eta hori bai, ekintza guztiak dohainik izango dira, Udalarekin hitzartu bezala.

Gaur, martxoak 29, bi ekitaldi egingo ditu BGAK. Udaletxeko Batzar Areatoan, arratsaldeko 7etan, Abiadura Handiko Trenari buruzko hitzaldia izango da. Gaueko 10ak aldera, kontzertua izango da Plaza azpian. Iluna Beltzez, Amen eta 30 % taldeak izango dira. Kontzertuen aurretik, afari irekiak egiteko asmoa dute gazteek musikariek, Loinatzen.

Igandean, martxoak 31, mendi-irteera egingo dute. Goizeko 9etan aterata eta eguerdiko ordu biak aldera etxera itzuliko dira. Era honetan, aste batean mendi-irteera eta bestean hitzaldia antolatu nahi du BGAK. Astero zerbait.

Aste Santuaren ondoren, euskal dantza ikastaroa izango da. Apirilaren 13, 20, 27 eta maiatzaren 4an, larunbata goizetan izango da. Ordutegia izena ematen dutenen artean erabakiko da. Ostadar dantza taldeko bi partaidek emango dute ikasgaia. Eta ohi bezala, plaza azpian izango da. Apirilaren

20rako, txapelketa berezia antolatu dute: futbolin txapelketa. Hau ere plaza azpian izango da.

Larru, makrame, niki tintaketa, serigragi, graffitti eta eskalada ikastaroak izango dira. Baina horien berri, dago-kion momentuan emango dugu.

Bai ekintza hauek, bai Gazte asanblada, "gazte sentitzen den edonorentzat daude irekiak", Unai Agirrek adierazi digunez. Herriko jaietarako ere, ekintza ugari ari dira antolatzen. Guzti honetan parte hartu nahi izanez gero, asteazken eta ostiraletan, arratsaldeko 7etatik aurrera, Kimuak-ek duen lekuan izango duzu tarte.



Baraualdia

Joan zen asteburuan bukatu zen, Presoak Euskal Herrira ekimenak antolatutako baraualdia. Lau egin dituzte, herriko presoak gose greban zeudela eta, egindako elkartasun adierazpenak izan dira. Batz bestea 12 lagunek hartu dute parte, larunbatetik igandera bitartean, Zubimuzu plazan jarritako kanpinetan.

Martxoaren 14tik 28ra, Jokin Aldanondo presoaren txanda izan zen. Ceutan dago. Gose greban egin zituen bi aste. Ahotik odola bota arren, segi egin

zion beasaindarrak gose grebari. 1986az geroztik dago Aldanondo kartzelan.

Fitness Kiroldegian

Martxoaren 16an inauguratu zen Antzizar kiroldegian Fitness gimnasialekua. 428 m² ditu eta 5 gunetan dago banatua: kirol kontsultegia; estiramentu gela; kardiobaskular gunea; bi arraun ergometro eta bi Stepper profesional; pisu librean gunea. Berrikuntza handiak eskaintzen dituzte aparatuek.

Aurrera begira Eusko Jaurlaritzak agindutako berrikuntzak egingo dira Kiroldegian. Batez ere, larrialdietako irteerei dagokiona. Era berean, igerileku itxia handitzeko asmoa ere badago.

Egitarau aldaketa

'Antzerki garaia' ren barruan, apirilaren 12an Eolo antzerki taldearen 'Flash-Bang' lanaren ordeaz, 'Los dioses y los cuernos' antzezlan eskainiko da. Estatuko lau Autonomia Elkartetako antzerki taldeak elkartu, Eolo euskal taldea barne, eta koproduzitu duten lana izango da hau. Produktzioak 4 Autonomia Elkartetako Gobernuen laguntzak jaso ditu eta Estatu mailan izan den "muntai handietakotzat" hartu da.

Ordua eta lekua betikoa: Usurbe Antzokian, 22:15ean. Sarrera 600 pezeta.

Amaia Zubiria

Kultur-kidek antolaturiko aurkezpenen barruan, apirilaren 12an, Amaia Zubiria kantariaren 'Amonaren mengantza' diskoaren aurkezpena egingo da, Udal Liburutegian, arratsaldeko 7.30etan.

L.A.

- Ileapaindegia
- Edergintza
- Solariuma

Itxura aldaketa

Nafarroa Etorbidea, 37 ☎ 88 02 97
BEASAIN

ANAIK C. B.

Eraikuntza materialen biltegia

Antzizar Kalea, 4 ☎ 16 20 79
BEASAIN

Inprimategia

ECUZZI

Nafarroa Etorbidea, 9
Tfn: 88 94 82
20200 BEASAIN

Nikolasek eta Maria Jesusek Ostatuari agur

Urte batzuk azkartxeago beste batzuk geldixeago, batzuetan lan gehiago eginez, beste batzuetan gutxiago, horrela, denboraren etengabeko joanean, abuztuaren 20an beteko dira hogeituro urte Nikolasek eta Maria Jesusek herriko Ostatua hartu zutela.

Ez ziren oso animatuta sartu hasiera hartan, izan ere, ez baitzuten lan horretan esperientzia haundirik eta kezkak edo beldurrak atzera eragiten ziren, baina, garai hartan alkate zen Andres Goia zenak behin eta berriro eskatzen ziela ikusirik, azkenean hartzea erabaki zuten, eta geroztik eginkizun horretantxe murgildu dira buru-belarri herritarrei zerbitzu eder askoa eskainiz.

Hasierako urteetan eskuak bete lan izan zuten Ostatura inguratzen ziren guztiei edaria eta janaria eskaintzen baina azken urte hauetan, Nikolasen



esanetan, beherakada nabarmen samarra izan da; hala eta guztiz ere, sasoi betean baleude pozik asko jarraituko luketela aitortu dute bai Nikolasek, bai Maria Jesusek.

Baina urteak igaro ahala nekea ere somatzen hasi dira eta seme-alabek beste bide batzuei heldu dietenez, Os-

tatua utzi eta lehengo baserrira, Oñatibi Aundira, itzuli dira bizitzaren azken urteak lasitasunez eta patxadan igarotzeko asmoz.

Hogeituro urte hauetan jende ugari ezagutzeko aukera paregabea izan dute eta familia osoaren izenean herritar guztiei eta kanpotik etorri direnei ere euren eskerrik egiazkoena luzatu nahi diete eta Ostatura utzi arren Oñatibi Aundi baserrian izango dituztela adierazi.

Ostatuaren etorkizunari dagokionez, Udalak subastan ateratzeko asmoa du eta beste norbaiti izendatu baino lehen sukaldean zenbait obra egingo ditu.

Azkenik, Gabiriako Udalak herritar guztien izenean bene- benetako esker ona eman nahi die hogeituro urte hauetan herriari eskainitako zerbitzuarengatik.

Gabino Murua

ORMAIZTEGI

Aurten ere Felipe Printzearen saria jaso du Irizarrek

Iazkoan Diseinu Industriari eta Konpetentziari zegokion Felipe Printzearen saria jaso zuen Irizarrek. Aurtengoan, berriz, Enpresa Bikaintentzakoari dago-kiona.

1995. urtean Irizarrek arlo guztietan markak hautsi zituela esan badezakegu ere, 1996. urtea ere gutxiagorako ez dela izango dirudi. Hain zuzen ere, hasi berria dugun urte honek Irizar kooperatibari nazio mailan enpresei ematen zaien gorengo saria ekarri baitio. Hain zuzen Felipe Printze saria.

Arrasateko Talde Kooperatiboan barneratua dagoen Irizar kooperatibak iaz jaso zuena Diseinu Industriala eta Konpetitibitateari zegokion Printzearen 20-GOIERRITARRA



Saratsaga gerentea Printzearen eskutik saria jasotzen.

saria izan zen, beraz azken batean produktua bera zen saritua. Aurtengoa, enpresek sari hauek lortzeko bete beharrezko baldintzak askoz maila altuagoan kokatu dituzte, hain zuzen

aurtengo honetan, gestioaren kalitatea hartu baita kontutan eta hori izan da saritua.

Azken batean enpresako arlo guztiak izan dira kontutan sari hau nori eman erabakitzeke orduan. Bikaintasun mailarik gorenari dagokion saria baita. Bezero eta langileekiko harremanak, prozesuak, pertsonal gestioa, errekurtsioak, gizarte eragina, etekin ekonomikoa...

Orain 3 urte sortu ziren Gorentasun enpresariala saritzen duen Felipe saria. Irizar kooperatiba bi urtean izan da saritua.

Aitziber Murua

D ereduaren aldeko apustua Udalak

Hezkuntza ereduaren arteko eztabaida iritsi da Ordiziarra ere eta esan Udalak D ereduaren aldeko apustua egiteko eskatuko duela. Dena den, bi mozio mahai-gaineratu ziren, bata EAJk proposatutakoa eta bestea HBrena. Azkenik jeltzaleena onartu zuen udalbatzak.

Jeltzaleen proposamenak dioenez, herritar guztiek dute beraien seme-alaben heziketarako eskola-eredua hautatzeko eskubidea. D ereduak da euskararen irakaskuntza bere osotasunean ziurtatzen duen bakarra. Oinarritzko Heziketa Orokorreko edukien bermetasun osoz gainera. Eta guzti hau honela izanik, gurasoei D ereduaren aldeko apostua egiteko eskatu die.

HBko zinegotzien iritziz, onartzeko modukoa da jeltzaleen mozioa, baina gaur egun gauzarik garrantzitsuenak A ereduaren erabat desagertaraztea da. Horregatik honako proposamena luzatu zuten: D ereduari matrikulatuta dauden umeen gurasoen interesak defendatzeko batzorde bat sortzea. Eta, A ereduari dauden ikasleek euskaraz ikasten ez dutenez,

Udalak eska diezaiola Administrazioari erdal ereduaren desagertzeko mekanismoak martxan jar ditzan. Bigarren mozio hau atzera bota zuen udalbatzak.

Aipatu ikastetxeetan dauden bi urteko haur guztiak (48) D ereduari ari dira, 5 urte bitarteko guztiak ere bai. Heldu-eragoak diren gehienak D ereduari ari dira eta gutxi batzuk B ereduari.



HEZiren zentru berriaren inaugurazioa.

Gazteen enplegurako zentrua

Gazteen Enplegu Sustapenerako Zentrua (EVS) inauguratuta dago jadanik. Zentrua Hezi Kolektiboak bideratu du eta aholkularitza bulego honen helburua langabezian dauden pertsonen (batez ere gazteak) lana topatzeko eta lan munduan sartzeko gomendioak ematea izango da. Formaziorako aukerak azalduko dizkiete informazio eske hurbiltzen direnei.

Etsipena eta norbere buruarengan konfiantza eza izaten dira askotan langabezian dauden arazoetariko batzuk eta dinamika honetatik ateratzeko laguntza eskaini nahi da enplegurako zentru honen bitartez. Bulegoa Dorre-Etxean dago eta egunero egongo da zabalik goizeko 10etatik ordu batera, baita arratsalde ere hitzordua aldeztu aurretik eskatuz gero. Telefonoa: 161363.

 Aitor Calvillo

LEGORRETA

Baraualdia presoak Euskal Herriratzearen alde

15 egunez egon dira zenbait herritar Udaletxean itxialdian, presoak Euskal Herrira ekar ditzaten eskatuz. Astegunetan Udaletxean igarotzen zuten gaua eta asteburuetan baraualdiak burutu dituzte. Pako Eskitxabel legorretar presoak gose grebari ekin bazion ere, bertan behera utzi behar izan zuen bere ahalegina, osasun arazoengatik.

Festen antolaketa

Udaletxeak koadrila eta elkarte ez-

berdinekin bilerak izan ondoren, esan daiteke dagoeneko lotuta daudela festetako ekintza gehienak. Ezinbestekoa suertatzen da jendearen partehartzea festak antolatzeko garaian.

Pelotaren txanda

Hilaren 17an eman zitzaion amaiera koadrilen arteko futbol txapelketari. Izklimalikoak izan dira txalpeldunak 'Jan da lo' koei 5-2 nagusitu ondoren. Final ostean Bilkoin elkarteak bazkaldu

zuten koadrila guztiek. Arratsalde partean bizi izan zen giroagatik badirudi denek zeukatela zer ospatua.

Futbol txapelketa amaitu ondoren, pelotakoa hasi zen hilaren 23an. Bikoteak zozketaren bidez eratu ziren eta bikoteen mailaren arabera bi taldetan banatuko dira. Larunbatetan izango dira partiduak, arratsaldeko 4etan.

 Josune Amondarain



pintura eta gaineztadurak

Aita Urdaneta, 6

☎ 88 59 28 - 16 17 44 ORDIZIA

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

Sagardotegia



aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66 LEGORRETA

Liburutegia herritarrengana hurbildu nahirik



1985ean irekia, 10 urte beteta, herriko liburutegiak zabalik ditu ateak, herritarrek egin ditzaketen irakurketa, kontsulta edo liburu maileguetarako. Azken 3 urteotan Kontxi Artola ari da bertan, liburuak erregistratzen, sailkatzen eta herritarrei informazioa eta zerbitzua ematen. Liburutegia, astelehenetan, asteartean eta ostegunetan egoten da zabalik, 18:30etatik 20:30etara. 24 lagunentzako kabida du, eta momentu honetan 7.319 liburu daude, literatura arlokoak, batez ere, euskaraz, eta gainerako gehienak gazteleraz. Bertan, fotokopia zerbitzua ere badago, eta bazkide egiteko baldintza bakarra herritarra izatea da.

10 urte hauetan, 436 bazkidek egin dituzte liburu maileguak. Liburutegira egunean zehar, inguratzen den jendearen batz bestekoa 15en bat lagunekoa da. Batipat ikasleak, 6. mailatik UBira bitartekoak, bertako liburuak irakurri eta kontsultatzen baina gehiago, eskolako lanak egitera edota azterketak prestatzen. Jende heldua oso gutxi azaltzen da, normalean, bertan gelditzen ez diren 30-40 urte bitarteko batzuk.

Arazoei dagokienez, bertan irakurtzen edo lanetan egiten aritzeko, isil-tasunik eza nabaria da. Honez gain espazio arazoa ere sortzen ari da, aretoa txikia ari da gelditzen, agudo betetzen da jendea, eta liburuz ere toperaino dago.

Lan toponimikoa amaitua

"Etnogintza etxe berezituak" Segurari buruzko lan toponimikoa amaitua du. Udaletxeakoei egindako aurkezpenaren ondoren, honek lanaren argitarapena onartu zuen. Soroz soro jasotakoa, artxiboetan egiaztatu ondoren, koloretako mapa tolesgarri batean kaleratu nahi da

22-GOIERRITARRA

San Juanak alderako. Bertan, herriko leku izenez gain, baserri, bide eta aztarna historikoren bat dagoen toki guztiak azaltzen dira.

Madurako bariantea

"Nola zeok madurako barianten asuntua?"

Herritar batek baino gehiagok du kezka berezia gai honen inguruan. Momentuz, Udalak eskatuta, Diputazioko teknikoak aurtan dira Madurako bariantearen proiektua egitekoak. Aurkezpenaren ondoren, emendakinak egiteko epea zabalduko litzateke, gero proiektua onartu, konkurtsora atera etab. egiteko.

Abesbatza elizan

Zapatuan, martxoaren 30ean, iluntzeko 19:30ean, eta 29. Gipuzkoako Abesbatzen Jaialdian barne, Andoaingo "Alberto Agirre" abesbatzaren emanaldia izango da herriko elizan.

III. Elorri sari banaketa

Josetxo Ugalde, Joxean Ormazabal eta Iñaki Murua epaimahaikideek, erabakia dute dagoeneko, zeintzuk diren aurtengo III. Elorri idazlan lehiaketako lanik onenak. Hauek, martxoaren 31n, eguerdiko 12:30ean, Kultur Etxean izango den ekitaldian jakinaraziko dira. Parte hartzaile guztientzat egongo dira diploma eta sariak. Guztira 36 idazlan jaso dira, eta datoren urterako argitaratuko dira. Iazkoak argitaratzear daude. Ekitaldi amaieran, bertara azalduko diren guztientzat luntxa eskainiko da Elorri elkartearen.

Bertso jaialdia

Urtero, garai modu honetan Segurako Txirindulari Elkarteak antolatu izan duen bertso jaialdian, aurtan, apirilaren

13an, gaueko 10:30ean, Baratze Pelotalekuan, M. Lujanbio, J. Agirre, Mañukorta, M. Mendizabal, I. Murua, A.M. Peñagarikano, A. Egaña eta S. Lizaso arituko dira, zortzietako bat gai jartzaile dela.

XXIX. Herriarteko pelota

Gipuzkoako 24 herri, horien artean Segura, aurkeztuko dira apirilaren 10ean egingo den *interpueblo*seko zozketara. Lehenengo kanporaketarako 4 herri libre geratuko dira, eta aurreneko partidua apirilaren 12an jokatuiko dira. Jokatzeko aukerak dituztenak, hauetxek dira:

- Infantiletan: Uritz Gonzalez, Inge Olano, Ibai Telleria eta Ekhi Albizu.

- Jubeniletan: Iban Berasategi, Xabier Etxeberria eta Oskar Terra.

- Afizionatueta: Iñaki Artola, Ibon Etxeberria, Jon Ander Honbre, Egoitz Berasategi eta Iñigo Otegi.

Futbola

Asteburuko emaitzak:

- Infantilak: Aizkorri 1 - Hernani 1.
- Kadeteak: Dunboa 1 - Aizkorri 0
- Jubenilak: Segura 2 - Zarautz 2
- Regionalak: Hernani 0 - Segura 1

Asteburuan etxean:

- Kadeteak: zigorragatik Zumarragako Arginxaon jokatuiko dute Billabonaren kontra, zapatuan, 18:30ean.
- Regionalak: Segura - Baskonia, zapatuan, 17:00etan.

 Joseba Telleria



Arrantzarako zaletasuna ugalduz doa gazteen artean. Orian zein Mutiloa errekan herritar ugari daiteke egun hauetan. Argazkian, Gregorio Izeta, Asier semeari eta Miren ilobari arrantzarako teknikak erakusten Armaolako presan.

Gose greba eta akanpada 23 lagunek, Urko eta Atxoren alde

Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Jarraik deialdia eginik, 23 lagunek akanpada eta gose greba egin zuten joan den aste-buruan, herriko presoekin, Urko eta Atxorekin, solidarizatzeko; hauek ere, beren eskubideak exijitzeko, gose greban baitaude. Ostiralean hasi eta igande goizean amaitu zituzten ekin-tzak.

Herriko plazan doenerdi bat kanpin-denda ipini zituzten eta horrela erakutsi nahi izan zuten beren solidaritza eta preso- eskubideen aldeko jarrera. Akan-patuetako batzuek adierazi zigutenez, bai Atxo eta Urko eta bai gaineratiko preso euskaldunak Euskal Herrira ekarraraztea da azken helburua. Protestari amaiera emateko, besteak beste, errepidea, Illati parean, igande eguerdiko 12etatik 13etara moztu egin zuten.

Mus txapelketa

Kandido Hernandez eta Alberto Pardo donostiarrek irabazi zuten joan den larunbatean Zubiburu elkarte- an jokatu zen bat-bateko mus txapelketa. Antiguoko bikote honek lehen aldia omen zuen horrelako lehiaketa batean parte hartzen zuela. Beraiek jaso zituz- ten lehen postu horri zegozkion txapela bana eta 120.000 pezeta.

Hurrengo hiru parejak herritarrak izan ziren: Jose Joakin Regil eta Sito Iraola geratu ziren bigarren eta 60.000 pezetarekin. Jesus Mari Beloki eta Juan Etxabek jaso zuten hirugarren saria, 30.000 pezetakoa, eta laugarrena, ber- ritz, Iñigo eta Jon Etxeberriak. 15.000 pezetakoa zen sari hau.



Goiko argazkian: sokatira txapelketa. Behekoan: Zaharra eta Pototoren omenaldiko bazkarian abeslarien saioa.

77 bikotek hartu zuten parte. Inolako liskar eta gorabehera gaiztorik gabe joan zen txapelketa osoa.

Ikuskizun polita sokatiran

Martxoaren 23an, Euskal Herriko liga- ri zegokion goma gaineko sokatira- ekitaldia izan zen gure herriko Resti pilotalekuan. Honako partaide hauek osatzen zuten lehen taldea: Urrestilla, Barrundia "A" (Araba), Beti-Gazte (Nafarroa) eta Eskoriatza. Bigarrena, berriz, Goierri, Iparralde eta Abadiño (hirurak bizkaitarrak), Badaiotz (Ara- ba) eta Areso (Nafarroa).

Arauturiko tiraldiak eman ondoren, lehen taldetik, Beti Gazte eta Urrestilla pasatu dira finalera, 4 eta 3 punturekin. Bi- garren taldetik, berriz, Iparralde eta Abadiño, 5 eta 4 punturekin.

Oso ikuskizun ederra izan zen eta gozatu bikaina hartu zuen han bildu zen ikuslegoak.

Eskola maparen bilera

Eskola mapa berriak kezka handiak sortu ditu guraso eta udal arduradunen artean, hori dela eta, eskaera hau egin diote Hezkuntza Sailari: 14 urtera arte umeak herrian eskolatu, eta gero joan Delegazioak esaten duen tokira. Gai hau zabalago trata zedin, bilera berezia egin zuen Udalak martxoaren 22an. Her- ritar askok hartu zuen parte eta Udala gogor saiatuko da exi- jentzia hori bete dadin.

Zaharra eta Pototo

Martxoaren 8tik 10era ospatu zen Zaharra eta Pototoren urteroko ome- naldia. Hainbat ekintza antolatu zen, tartean, herri bazkaria, kalejira, txar- ranga, dantzariak, pelota partiduak eta abar. Aipagarria izan zen bazkal ondo- rengo giroa, herriko hainbat jende- k parte hartu zuen, antzerki, soinu- jole, abeslariak eta Dominikak, 78 urte- kin, bertso zaharrak abestu zituen. Arratsaldeko 8etan jendea oraindik mahaian eserita zegoen. Atxo eta Ur- koren Euskal Herriratzea ere eskatua izan zen.

 Rufino Iraola



Tfona: 885500 ORDIZIA



GOIHERRI, S. L.
Iturgintza

Sanitarioen instalazioa, Iturriak, Bai- nuko altzariak, Berogailu eta gasa.

Urdaneta, 24 ☎ 88 11 57 ORDIZIA



Martxoaren 18an hasi ziren Gasolindegirako lanak.

Herria pizten

Poza ematen du. Lanak batetik eta bestetik. Hasi dira gasolindegia egiteko lanak. Garai batean Samartingo Plazan zen eta orain haren segida. Guillermo Galparsorok irekiko du.

Eta gauza gehiago ere bai. Ur lan-tegiarena ondo doa, Altzanipeko Futbol-zelaian etxebizitzak egiteko lur-rak Jaurilaritzaren esku daude, eta Agauntza erreka Olalde aldean bideratzeko eta Aitzarte Erreka Iztator-Zahar inguruan desbideratzeko akordioa lortu da.



1900go erlojua. Ondo zaintzen du Joxe Luis Kerejeta.

Ze ordu da herrian?

Ordu-aldaketa duzu igande goizean. Eta zintzo asko aldatuko du Joxe Luis Kerejeta, San Martingo Elizako erlojuaren ordua. Kaso eginda dago baina nahikoa lan hala ere.

Garai batean eguzki koadrantea omen zen eta azken mende honetan erlojua. Oraingoa 1900. urtekoa da. Usurbilgo L. Yereguik egina. Joxe Luis orain 30 urte hasi zen, gutxi gorabehera, kaso egiten. Aberi bat edo beste izan du baina berak konpontzeko modukoak. Garai batean "Galtxeberri"ko Joxer-rumun Barandiaran zenak lagundu ohi zion

eta orain 3 urte izan zuen aberia Iturtxoko Zelestino Goikoetxeak konpondu zuen. Azken 2 urteotan "Ermentari"ko Nikolas Goikoetxea dabilki laguntzaile. Engrasatu, mantentimenduko gorabeherak, argiak...

7 egunez behin ematen dio kuerda. Bi hargorri ditu eta Elizako Ponteraino jeisten dira. 15-16 metro bai, ganbaratik behera. "Garai baten pilaik ez, ta argorrik ta ak aundiik...". Bistakoa denez, nahikoa lan. Manibela hartu eta eskuz, eman eta eman, igo behar hargorriak.

Adituek diotenez, "joya" bat omen da. Leku batzuetan "motor" bidez egiten dute kuerda ematea. San Gregorion adibidez. Joxe Luisek esan digunez, 2.000 urtean beteko ditu erlojuak 100 urte eta ordurarte jarraitzeko prest dago bera, baina gero zer?

Leku publiko batean dago, gehienok begiratu izan diogu noizbait eta geldi edo gaizki dabilenean, keiatu ere izan gara. Ez al zaigu alferrik galduko?

Jubilatuak jokulari

Joku eta txapelketa ugari izan dute San Jose inguruan. Hauek txapeldunak: **Mus 4:** Patxi Aizpurua - Felix Eskisabel. **Mus 8:** Fernando Etxeberría - Pello Kerejeta. **Tutean:** Bixente Goi-

koetxea - Antonio Goikoetxea. **Seiko urre:** Joakin Aizpurua - Jazinto Begiristain. **Eskoban:** Joakin Aizpurua - Jazinto Begiristain. **Puntuat:** Julian Imaz - Nikolas Munduate. **Tokan:** Jexux Urbiztondo. **Zapoan:** Benito Arruabarrena. **Potean:** Felix Eskisabel.

Atsedentokiko batzordearen partetik mila esker laguntza eman dieten guztiei.

Zenbat gara?

Hori jakiteko, Errolda edo padroi berritzea egingo da. Bi langile kontratatuko ditu Udalak, etxez-etxe galderak egin ditzaten. Martxoak 31, igandea, bitarteko epea dago lan hau egin nahi dutenek izena eman dezaten.

Aurtengo Erroldak, maiatzaren Lehena izango du erreferentzia. 1994ko urtarrian 1.654 bizilagun eta 1995koan 1.635. Orain 100 urte 2.600 inguru. 1863an 3.195. Eta 1962an 3.051.

Jaiotzak

Ari dira jaiotzen berriak. Mikel Arratibel Flores. Otsailaren 8an jaio zen. Ergoneko Bordatxo-Etxean biziko da, Migel Angel eta Kontxi aita-amekin.

Intza Sacristan Etxeberria. Otsailaren 15ean jaio zen. Ugalde Karrikako Arratibel-Erdikoa izango du bizileku, bere guraso Jexux eta Maiterekin. Zorionak denei.

Heriotza

Franziska Munduate Imaz. Arbeldizar baserrikoa. 83 urte zituela hil zen martxoaren 14an. Atsekabeen lagun familiakoei.

Kukua

Badator... Zuhaitzak hostotzen ari dira. Andre Mari Martxokoan joko zuen Erromako Zubian eta laster dugu hemen. Apirilaren 2an edo. Poltsikoak beteta ibili "bazpare".

 Jon Aizpurua

Ordiziako Txirrindulari Elkartea

Elkartea bera sortu berria izanagatik ere, berau osatzen dutenak Bixin Ciclo Club-eko Txirrindulari Eskolaren oinordeko dira. Elkar-teak gurasoak ditu oinarrian, eta beraiek antolatu eta abiatzen dituzte antolatzen diren ekintza guztiak.

Aurtengorako eta taldeei dagokionean, jubenil mailakoaz gain, eskolar-teko (infantil) mailak sendotu nahi dira. 1997rako kadete eta afizionatu mailako taldeak sortzea ere eginkizunen artean daukate. Azken honek jubenil mailakoa bukatu eta goi mailako taldeetan lekurik izango ez luketen txirrindulariei emango liekete kabia.

Aurtengo jubenilen taldea ondorengo txirrindulariek osatzen dute: Txomin Bartolome, Iurgi Auzmendi, Dioni Galparsoro, Igor Imaz, Eneko Ugarteburu, Oroitz Aldasoro, Xabier Sarasola, Zugaitz Ayuso, Ruben Gonzalez, Juanxo Burgos, Alex Perez, Iñaki Leunda, Victoriano Galdos, Jon Ormaetxea eta Mikel Saralegi. Zuzendaritza lanetan Xanti Osoro, Gorka Telleria, Jon Mikel Galparsoro, Mikel Zuriarrain eta Antton Altolagirre ari dira eta Lehendakaria Jose Ramon Marotias da. Babesleak Opel Irurok, Marotias Txirrinduak eta Ordiziako Udala dira. Aurtengorako 2.750.000 pezetako aurrekontua dute.

Iazkoan, Gipuzkoako Taldekako Er-



lojupekoa antolatu zuten, aurtan, eta orduan burututako lan txukunak eraginda, beraien esku uztea erabaki dute aipatu txapelketa. Honetaz gain, jubenil mailako Gipuzkoako Itzuliko aurtengo aurkezpena eta lehen etapa ere Ordiziako Txirrindulari Taldeak antolatuko ditu.

Ikasturtea amaitzean, eskol-umeei begira, txirrindu irteera zenbait antolatzeko asmoa dute. Hauek herriko jaietako umeen egunean egingo lirateke, ginkana batekin amaituaz.

Iaz hainbat garaipen lortu zituzten, bai bakarka, baita taldeka ere. Gipuzkoan garaipen gehien lortu zituen taldea izan zen (13 bakarka eta 14 taldeka). Denboraldian zehar burututako ohiko laisterke-

tez gain, 4 itzulitan hartu zuten parte: Gipuzkoa, Bizkaia, Comunidad de Madrid eta Circuito Camargues de Cantabria. Proben %30 eskuratu zituzten.

Loinatz T. E. ere indarrean

Joan zen asteburuan Loinatz Txirrindulari elkarteko 1. mailako kadeteek Lazkaon 5. postua lortu zuten, Xabier Goibururen eskutik. 2. mailakoetan, Zarautzen, Ander Perezek 3. egin zuen sprintean. Afizionatueta, berriz, Lizarran, Joseba Arregik 10. postua bereganatu zuen.

M. A.



**LAZKAO
GARAJEA**


RENAULT

Senpere Industrialdea
☎ 882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO

AGENTZIA

GOIERRITARRA

☎ 88 96 12
Faxa: 88 27 19



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

**Barandiaran
ZERAMIKAK**

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN

Jose Ramon Soroiz 'Jaun eta jabe' Ajuria-Enean

Gasteizko Ajuria-Enean aurkitu dugu beste goierritar bat. Martxoaren 26az geroztik, Jose Antonio Arizkorreta lehendakari berria Jose Ramon Soroiz dugu. Sukaldaria da izatez legorretarra, baina telebistan lortutako arrakasta aprobetxatuz, lehendakari izateraino iritsi da. Arizkorreta jaunaren morroia, Telesforo Aranzadi (Mikel Garmendia, ordiziarra) da.

"Pertsona senziloa, kalekoa. Ez naiz politikoa. Ez dut maskararik, pentsatzen dudana guztia aurrera eramaten dut. Sukaldaritza da nere hobbia eta inola ere ez dut utzi nahi. Orduan Lehendakari izendatu ondoren, Ajuria Eneako sukaldean grabatzen ditut telebistarako programak. Zikloturista ere banaiz". Horrelaxe deskribatu du Jose Antonio Arizkorreta lehendakariak bere burua. Hori bai, "nik emango ditudan errezetak ondo apuntatu, oso onak dira eta", gaineratu du. Joselontxo edo Martin bezala eza-gunagoa izango duzue Arizkorreta jauna.

Izkutuko aurpegiak

Seriotasunera etorritz, "lan oso ona egin du Jose Ramonek --esan dute 'Jaun eta jabe'-ren zuzendariak--. Jose Ramonek berak darama telesailaren ardura handiena". Erronka handia izan da legorretarretantzat. "Paper ezberdin asko izango ditu. Emaztearekin ohean egotetik, jendaurreko mitina ematerainokoak. Telesail honetan Jose Ramonen izkutuko aurpegiak aterako dira. Orain artean ezagutzen ez zitzaizkion erregistroak aterako dira. Bikain notarekin gauditu du. Jendeak gozatu egingo du".

'Jaun eta jabe'-k umorez kontatzen ditu sukaldari arrakastatsuari (Jose Ramon Soroiz) gertatutakoak: lanean eta famili artean gertatutako pasadizoak



Jose Antonio Arizkorreta lehendakari-sukaldaria eta Telesforo Aranzadi morroia.

"Telesail honetan Jose Ramonen izkutuko aurpegiak aterako dira"

ditu. Sukaldariaren emazteak Blanca (Elena Irureta) du izena. Horrez gainera EEBBetan ikasten ari den alaba eta 20 urteko seme intsumisoa (Anaitz Zuazua) ere baditu berak. Telesforo Aranzadi (Mikel Garmendia) morroia; Oscar (Jose Mari Berasategi) seguritate burua; Maritxu (Juani Mendiola) sukaldaria eta Iñaki (Carlos Pastrana) lorazaina ere familiarekin bizi dira. Lehendakariak ondoan izaten ditu, halaber, krisi kabinetea eta politika aholkularia. Azken hau, Eukene Lopez de Apostua (Isidoro Fernandez), lehendakariaren konfiantzazko gizona da.

Politika eta telebistaren parodia

"Telesailaren asmoa ez da politika eta telebista munduaren parodia egitea. Populismoaz hitz egitea da asmoa, politikan sartzeko ezaunak izatea aprobetxatzen duten pertsonen hitz egitea. Baina batez ere, borondate onaren bidez gauzak konpontzea zaila

dela isladatu nahi dugu. Oro har, gizon arrunt batek botereari nola eusten dion erakutsi nahi dugu. Politikari bigarren mailako garrantzia eman diogu kontakizunean. Ez zaigu oso interesgarria iruditu eta gai zaila da politika telesaillean jorratzeko. Gaiak baino, pertsonaien jokaerak interesatzen zaizkigu", adierazi zuten zuzendariak.

Hasiera batean 'Ajuria-Enea' izena zuen asteartean estreinatu zen komediak. Jose Mari Otermin ETBko Progrma zuzendariak aurkezpenean adierazi zuenez, "normala da ETBn, baita beste toki batzuetan ere, saioen izenak aldatzea".

Asteartetan, ETB-leko pantailan, Goenkaleren ondoren, gaueko 10etan izango da Ajuria-Enea barrutik eza-gutzeko aukera. Ordu erdiko 13 atal ditu telesailak. Euskal Mediak eta Euskal Telebistak ekoiztu dute elkarlanean. Eneko Olasagasti eta Karlos Zabala izan ditu gidoilari, errealizadore eta zuzendari. Produktore egilea, Angel Amigo.

Umekeriak - El pensil florido

Joan zen udan grabatu zuten 'Jaun eta jabe'. Jose Ramonek ahaztua du jada hura, burua freskatu behar izan du 'Jaun eta jabe'-ri buruz hitz egiterakoan. Ez da harritzekoa, udaz geroztik beste bi antzezlanetako protagonista baita legorretarra.

'Umekeriak' antzezlanean, Jose Ramon Soroiz da protagonista. Bakarriketa lana da, umorezkoa. 19 bat emanaldi egin ditu jada.

'El pensil florido' berriagoa da. Ordizian estreinatu zuten otsailaren 23an. Mikel Garmendia ordiziarra ere bertan lan egiten du. Hau ere, umorezkoa.

 Loinaz Agirre




1892ko Ostiral Santu eguneko prozesioa Seguran


Pedroneko balkoitik ateratako argazkian, zaildutako aurpegi pilaz gain, 9 paso ikus daitezke. Kurutzea falta da, hau 1937an atera baitzen lehen aldiz. Erromatar soldadu zaharrak ageri dira, gaurkoak 1898an ekarri baitzituzten.

Argazkian ageri direnetatik aipagarria da parez pareko balkoian dagoen mantatako umea, Ximon Rufino. Baita sepulkroa zainduz doazen txapelokerrak ere. Kuriosoa da argazkian lehen lerroetan gizonezkoak bakarrik ageri direla.

**EZtaBAldak • Body count •
Zanpantzarak • Txarriak •
La polla • Akanpalekua •
Esposaketak • Maskarada •
Negu gorriak • Herri kirolak •
Tailerrak • Txoznak • Su Ta Gar
• Bideoak • Mendi irteerak
• Karpa erraldoia • Jokukak
• Etsaiak • Jentilen Jeitsiera
• Zebda • Mahai ingurua •
Irrati librea • Herri olinpiadak •
DUT • Animazioa • Bertsolariak**



HIZKUNTZAK ATZERRIAN



Hizkuntza bat ikasteko era aproposena bere inguruan ikastea da. Horrela ez dira ikasiko ezagupen teorikoak soilik. Hizkuntza berriarekin bizitzen ikasten da, momentu guztietan erabiltzea, eguneroko bizitzan moldatzea. Ikasi ahala kultura ezberdin bat eta bizimodu berri bat ezagutzeko aukera edukiko da.

Uda momentu aproposa da klaseak, ekintza kultural eta aisialdikoekin tartekatuz hizkuntza gustora ikasteko, konfidantzako giro batean.



The Clover School of Languages

Neurri guztietako ikastaro eta oporraldiak eskeintzen dizkizugu **Frantzia, Irlanda, Britainia Handia eta Estatu Batuetan.**

Domingo Unanue Plaza, 5

ORDIZIA

☎ 16 20 16



Egonaldiak Nickekin Ingalaterran

- ✕ Hilabete konfidantzazko familiekin bizitzen, Londresen erdigunetik ordu erdira.
- ✕ Klase praktikoak eta aktibitate kulturalak: antzerkia, bisitak, kirolak..., pertsonalki ikuskatuta.

✕ 9 urteko esperientzia.

J.M. Barandiaran, 1 ☎ 88 00 83 - 16 00 51 ORDIZIA



INGALATERRA 96

Eskualde turistikoko garrantzitsueneko inguru politenean.
Plymouth - Donostiarekin anaituta

- ♦ 3 aste, Beasain bertatik ekainaren amaieran irtenda
- ♦ Konfidantza osoko familietan
- ♦ Ikasketa teoriko eta praktikoak Beasainen bizi den, bertako irakasle ingelesarekin, **Paul Jenner** Londresera bisitaldia.

Prezio murriztuak. Urtetako esperientzia.

Kale Nagusia, 32 - atzealdean, ☎ 16 14 41 BEASAIN



Munduko hizkuntza zentruen erakunde handiena

- ♦ Esperientziak zure egonaldia **Britainia Handia, Estatu Batuak, Frantzia, Alemania edo Irlandan** ziurtatzen du.
- ♦ Ikastaro eraginkor eta atseginak.

Elkano, 8 J.M. Durioz, 11
☎ 88 11 37 ☎ 16 05 72
ORDIZIA BEASAIN